



Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 30koa. Horren bidez, Ertzaintzak Bilbon eta Vitoria-Gasteizen izan zituen bi esku-hartzeen ondorioz hasitako ofiziozko espedientean egin duen jarduera bukatzen da. Esku-hartze haietan, bi gazte heriotza eragiteraino eta larriki zauritu zituzten, hurrenez hurren.

Aurrekariak

1. Pasa den apirilaren 5ean, Iñigo Cabacas gaztea heriotza eragiteraino zauritu zuten Bilbon, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak¹ adierazitakoaren arabera, Ertzaintzak futbol partidu baten ondoren jazotako gertakarietan izandako esku-hartzean jaurtitako gomazko pilota batek jo zuelako.

Egun batzuk lehenago, martxoaren 29ko greba orokorrean, Xuban Nafarrate gaztea ere larriki zauritu zuten Gasteizen Ertzaintzak izandako beste esku-hartze batean. Familiak salatu zuen polizia talde horrek jaurtitako pilota baten kolpeak sortu zizkiola zauriak, Herrizaingo Sailak ukatu bazuen ere.

Aipatutako gertakariak larriki zirela-eta, Arartekoa ofiziozko espediente bat izapidetzen hasi zen, bi kasuetan Ertzaintzaren esku-hartzea zehazki zer egoeratan gertatu zen jakiteko eta indarraren erabilera eta Herrizaingo Sailak gertakariak argitzeko gero egin zituen jarduerak erakunde honek eman dituen jarraibideetara egokitu ote ziren egiaztatzeko. Jarraibide horiek "Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistema" izeneko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasota daude (II.1.1., II.2.1. eta IV. atalak).

Espedientean bideratu genuen lehen jardura sail horren lankidetzara eskatzea izan zen, gai horren berri eman ziezagun.

2. Herrizaingo Sailak iragarri zuen barne-ikerketa bat ireki zuela, Bilbon gertatutakoa argitzeko. Ikerketa hori aipatutako gomendioan bildu genituen parametroetara egokitzen ote zen egiaztatzeko benetako datuak izan genituzan, ikerketa noiz hasi zen, zer eduki zuen, haren baitan zer jardura egin ziren eta zer ondorio lortu ziren jakinaraz ziezagun eskatu genion.

Eskaera hori Gasteizen gertatutakora ere zabaldu genuen, izan ere, ez genekien kasu hartan barne-ikerketarik egin ote zen, zauriak Ertzaintzak erabilitako istiluen kontrako materialek sortu zituztela baztertu ahal izateko.

3. Era berean, Herrizaingo Sailari eskatu genion erabilitako indarra gomendio berean jasotako zehaztapenetara egokitu ote zen egiaztatu ahal izateko beharrezkoa zen informazioa eskain ziezagula, bai barneko kontrolari dagokionez, bai ikuspuntu material zorrotzetik eta aplikatu beharreko legeko

¹ Agiri honetan agertzen diren Herrizaingo Sailaren aipamen guztiak, jakina, lehendakariaren irailaren 2ko 13/2012 Dekretuak sail horren berrantolaketa xedatu baino lehen zuen izenari dagozkio.



formaltasunak betetzearen ikuspuntutik. Era berean, jarduera horiek islatu zituzten agiriak igortzeko eskatu genion, halakorik balego.

Barne kontrolari dagokionez, zehazki eskatu genion jakinaraz ziezagula ea agenteek unean bertan jakinarazi ote zioten Aginte eta Kontrol Zentroari indarra erabiliko zutela eta ea zehazki dokumentatu zuten zer-nolako indarra erabili zuten. Era berean, ea euren nagusi hierarkikoek erabilitako indarraren egokitasunaren epaia egin eta berretsi zuten. Era berean, jarduera horiek islatu zituzten agiriak igortzeko eskatu genion, horrelakorik balego.

Azkenik, galdetu genuen Ertzaintzan zer jarduera-protokolo zeuden indarrean gomazko piloten jaurtiketen inguruko gertakariak jazo zirenean, eta protokolo horiek nola ezarri ziren bi kasuetan.

4. Iñigo Cabacasen heriotzaren ondoren, Ertzaintzan, unitate jakin batzuetan izan ezik, 2013. urtetik aurrera gomazko piloten erabilera debekatzea adostu zutela ere iragarri zuen Herrizaingo Sailak.

Gure esku-hartzea eragin zuten bi kasuak ikusita eta, aipatutako informazioaren arabera, Ertzaintzaren hainbat jarduera eremutan eta, nolana ere, 2012. urtea amaitu arte, oraindik ere gomazko pilotak erabiliko zirela kontuan hartuta, sail horri jakinarazi genion premiaz azterketa sakona egin behar zuela istiluen aurkako materialari eta hori erabiltzean kontuan hartu beharreko jarduera-protokoloei buruz, erreferentzia gisa hartuta gure inguruko herrialdeetako jarduerarik bermatzaileenak, nazioarteko eta Europako erakundeen zuzentarauak eta oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen zaintza –bereziki, bizitzarako eta segurtasun fisikorako eskubidea-.

5. Apirilaren 17an Herrizaingo Sailari lankidetzaren eskaera bidali genion fax bidez. Sail horrek faxa bidali genuen egun berean jaso zuela jakinarazi zigun. Faxe erabili genuen sailak berehala jakin zezan gure esku-hartzearen berri, eta al bait lasterren eskatutakoaren arabera jardun zezan, espedientea irekiarazi zuten gertakariak larriak zirela kontuan hartuta.

Eskaeran informazioa emateko adierazi genuen 15 eguneko epea sobera gaudituta, halakorik jaso ez genuenez gero, ekainaren 13an berriro ere Herrizaingo Sailari idatzi genion, informazioa berriz eskatzeko. Errekerimendu harekin batera, apirilaren 17an bidali genion eskaeraren kopia igorri genion.

Sailburuak ondoren adierazi zizkigun eragozpenen aurrean², gure lankidetzaren eskaera ofizialki jaso ez zuela esanez, uztailaren 11n idazki bat bidali genion. Bertan jakinarazi genizkion gai horren gainean egin genituen jarduera guztiak eta antolamendu juridikoak Arartekoari bere eginkizunak prozedura

² Agiri honetan Herrizaingoko sailburuaz agertzen diren aipamen guztiak, jakina, lehendakariaren irailaren 2ko 13/2012 Dekretuak egindako sail horren birmoldaketaren aurreko titularrari dagozkio.



informalekin bideratzeko ematen dizkion ahalmenak. Ahalmen horiei esker, Arartekoak kasu bakoitzean bere eginkizunak egokien iruditzen zaion moduan betetzeko behar duen informazioa eska dezake.

Herrizaingoko sailburuak hurrengo egunean –uztailaren 12an- erantzun zion eskaerari, fax baten bidez. Uztailaren 18an postaz jaso genuen faxez hartutako informazio bera.

6. Sailburuak, bere erantzunean, hasierako lankidetza eskaera faxez bidali izana aurpegiratu zigun. Haren iritziz, informazioa lortzeko bitarteko informaletara jotzeko daukagun legezko ahalmena erabili genuen, legegilearen asmotik oso urrun dagoen helburu batekin. Hala ere, ez zuen argitu zein zen, bere ustez, erakunde honek lortu nahi zuen legez kontrako asmoa ahalmen hori erabiltzean. Eta hauxe erantsi zuen:

“Por ello nos sorprende que en este procedimiento traiga a colación los citados medios inquisitivos para justificar que una comunicación enviada por fax (para avanzar la documentación) y que no fue posteriormente remitida a través del registro general de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco tenga la validez jurídica que esa institución considere oportuna en base a un criterio de urgencia o gravedad que, por cierto, la ley no establece para dicho supuesto.

La validez jurídica de las comunicaciones tanto mediante la utilización de la vía tradicional en papel como de la vía electrónica tiene una legislación que básicamente se contiene en la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos y en el Decreto 21/2012, de 21 de febrero, de Administración Electrónica, legislación que establece los requisitos y modos de comunicación entre los ciudadanos y las administraciones públicas y entre los poderes públicos en aras a la seguridad jurídica de la recepción y cómputo de plazos de los diferentes escritos”.

Ez zuen ukatu, hala ere, sailak faxez bidalitako eskaera jaso eta horren berri izan zuenik, eta hori da garrantzitsua erakunde honentzat. Era berean, ez zuen azaldu zergatik ez zioten erantzun hasieran faxez igorritako eskaeraren kopiarekin batera gero postaz bidali genion errekerimenduari.

7. Sailburuak adierazi zigun, bestalde, ezin genuela esku hartu Bilboko polizia jardueraren gainean, izan ere, bere ustez, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1. artikulua galarazten zuen, Arartekoaren jardura baztertzen baitu jorratzen den gaia bide judizialean dagoenean, kasu honetan bezalaxe.

Gainera, jakinarazi zigunez, Herrizaingo Saila instrukzioaren ardura duen epaitegiaren titularrarekin lankidetzan ari zen eta, bertan, azaldu zuenez, ikerketa zorrotza egiten ari ziren eta bost agente jarri ziren horrexetarako bakarrik haren agindupean. Amaitzeko zera aipatu zuen: *“Por lo tanto, tal y como acabo de reiterarlo, hay una única investigación de los hechos”*. Hau da, ikerketa judiziala.





Gure esku-hartzeaz adierazi zituen eragozpenak gorabehera, sailburuak erantzun zion bidali genion lankidetzara eskaerari. Horrela, Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean 2012ko apirilaren 12an egin zuen agerraldiko testua bidali digu –Bilboko polizia-jardueraren berri emateko-, baita ekitaldi hartan Ertzaintzako buruak egin zuen agerraldiarena ere. Argitu zigunez, Ertzaintzan jarduera-prozedurak hobetzeko ezarri beharreko neurrien iragarpenari dagokion agerraldiko testuaren zati bat ere bidali zigun.

Eman zigun informazioan ez zen aipatu Xuban Nafarrate larriki zauritu zutenean burututako polizia jarduera eta ez zuen azaldu zergatik ez ziguten eskaini gai horretaz eskatu genuen informazioa.

8. Herrizaingo Sailak bidali zizkigun agiriek ondoren azaltzen dugun moduan erantzun zieten guk galdetutako kontuei: hau da, barne-ikerketak, indarraren erabilera, gertakariak jazo zirenean gomazko piloten jaurtiketa arautzen zuten jarduera-jarraibideak eta aipatutako bi kasuetan izandako aplikazioa, baita istiluen aurkako materialaren inguruko azterketa eta material hori erabiltzean kontuan hartu beharreko jarduera-jarraibideak ere.

- 8.1. Barne-ikerketari dagokionez, sailburuaren legebiltzarreko lehen agerraldian zera aipatzen zen:

“...el Gobierno Vasco, este Consejero y los responsables de la Ertzaintza asumimos el compromiso de máxima transparencia, rigor y eficiencia en la investigación. La investigación va a ser rigurosa, va a llevarse hasta el final, con el objetivo de esclarecer todo lo sucedido y en su caso depurar las responsabilidades a que hubiera lugar...

(...)

Este doloroso e inesperado suceso tendrá respuestas en el marco de nuestro ordenamiento jurídico por la acción de la Justicia pero también por la aplicación del reglamento interno de la Ertzaintza. No vamos a ocultar nada. Vamos a investigar a fondo para llegar hasta el final cueste lo que cueste y le cueste a quien le cueste”.

Era berean, honakoa azaldu zuen:

“...quiero decir que la mejor forma de defender a la Ertzaintza es, precisamente, impulsar una investigación a fondo que aclare todo lo sucedido y en todo caso se depuren las responsabilidades a que hubiera lugar. Y, además, tomar las decisiones, como vamos a hacer, para que en la medida de lo posible, nunca más vuelvan a suceder situaciones tan dramáticas e irreversibles.

Antes de pasarle la palabra al Jefe de la Ertzaintza (...) quien les aportará los datos que hasta ahora se han recabado en la investigación, quiero recordarles que nada más conocer la gravedad de los hechos que se produjeron el jueves día 5 a la noche, el mismo viernes 6 ordené que se abriera una investigación.

Investigación que, como ya les he indicado, seguirá abierta aportando toda la información a la jueza que lleva el caso para colaborar en el esclarecimiento de los hechos y la depuración de responsabilidades. Para conseguir ese objetivo, ayer mismo mantuvimos un encuentro con la autoridad judicial para poner a su disposición toda la información recabada hasta el



momento, así como un equipo de profesionales de la Ertzaintza para trabajar con dependencia directa de la jueza, bajo sus órdenes, sin ninguna otra interferencia y con plena dedicación a este caso.

Familiares y amigos de Iñigo Cabacas han pedido que se investigue a fondo y yo quiero aquí, en sede parlamentaria, decirles que el Gobierno Vasco y más concretamente este Consejero que les habla tiene el firme compromiso de esclarecer los graves incidentes producidos el día 5 en Bilbao, llegando hasta el fondo cueste lo que cueste. Esta muerte dramática nos ha conmocionado a todos y quiero decirle al conjunto de la ciudadanía que los más interesados en llegar hasta el final y esclarecer lo sucedido somos el Gobierno Vasco, el Departamento de Interior y los responsables de la Ertzaintza”.

Ertzaintzako buruak ekitaldi berean egin zuen agerraldian, bestalde, honako datu hauek eskaini ziren ordura arte garatutako ikerketaz:

“La investigación interna que el Consejero ordenó el día 6 ha avanzado de forma importante en las últimas horas, aunque quiero adelantarles que todavía no estamos en condiciones de ofrecer conclusiones definitivas. Asimismo, las diligencias que conforman el atestado que hoy mismo se remitirá al Juzgado se han ido confeccionando desde el mismo instante en que tuvieron lugar los hechos.

Hemos obtenido información relevante de la declaración de la mayoría de los agentes intervinientes, así como de una serie de testigos que nos están permitiendo realizar una reconstrucción de los hechos, sin que, insisto, podamos en estos momentos ofrecer unas conclusiones definitivas”.

8.2. Ertzaintzako buruaren agerraldian, gainera, informazio hau eman zen gertakariez eta erabilitako indarraz:

“Como ya conocen, el día 05 de abril de 2012, con motivo de la celebración del partido entre el Athletic y el equipo alemán Schalke 04 en San Mamés, la Jefatura de la Comisaría de Bilbao estableció un operativo policial en previsión de incidentes, adecuado en sus dimensiones de acuerdo a eventos anteriores de similares características.

Entre las 23:27 horas y las 23:29 horas del día 05 de abril, se reciben en SOS DEIAK varias llamadas de particulares solicitando recursos policiales y sanitarios como consecuencia de unas agresiones por parte de un grupo de personas en la calle María Díaz de Haro.

En las mismas, se nos notifica que está teniendo lugar una ‘batalla campal’, cito textualmente.

En otro momento se asegura que a una persona ‘le han pisoteado la cabeza’, y en otra llamada se dice que hay un grupo de agresores de entre 15 y 20 personas, encapuchados.

Además, una persona que aparenta estar algo desorientada, manifiesta que está herida y solicita una patrulla y una ambulancia, aunque luego rechaza esta última, insistiendo vehementemente en la solicitud de patrulla policial.

A las 23:34 horas llegan al lugar de los hechos una patrulla de seguridad ciudadana y dos furgonetas antidisturbios de la Comisaría de Bilbao. Se ubican en el carril derecho de los tres existentes con una única dirección en la intersección de María Díaz de Haro con Licenciado Poza.





Personados en el lugar, los agentes reciben el lanzamiento de objetos realizado por grupos de personas ubicados en la esquina opuesta al lugar de estacionamiento de las furgonetas. Un agente del vehículo patrulla localiza y detiene a un varón, menor de edad.

Los agentes de las furgonetas antidisturbios realizan un cordón al objeto de proteger el traslado del menor detenido hacia el puesto de María Díaz de Haro y acordonar la calle en previsión de las acciones a desarrollar en la plazoleta donde se ubica la taberna KIRRULI.

Los agentes se encuentran, además, con una gran aglomeración de personas en la plazoleta de la taberna Kirruli, grupos que manifiestan una actitud violenta y un evidente estado de embriaguez en muchos casos.

Las demandas de auxilio persisten y se indica a tres recursos antidisturbios distintos de los anteriores que se dirijan hacia dicho lugar, al objeto de localizar a las personas agredidas, neutralizar los enfrentamientos y permitir el acceso de los servicios sanitarios para atender a los heridos.

En el momento de llegar, también son recibidos con lanzamiento de botellas, vasos, latas de cerveza sin abrir y diversos objetos contundentes desde la plazoleta y aceras anexas.

Ante dichas agresiones, los agentes se parapetan tras las furgonetas y se ven obligados a utilizar material antidisturbios.

Llegados a este punto, y con la información de la que se dispone, conviene aclarar algunas cuestiones relevantes:

Primero. Todos los vehículos y todos los agentes referidos hasta este momento pertenecen a la Comisaría de Bilbao. Ninguno de ellos pertenece a la Brigada de Refuerzo de Seguridad Ciudadana.

Segundo. Sólo tres de estas furgonetas, las que se encuentran ubicadas estratégicamente frente a la plaza, repelen las agresiones, en primer lugar, con disparos de salva y, después, con pelotas de goma.

Tercero. En esta intervención directa, las furgonetas portan una dotación de tres escopetas cada una, siendo la dotación total de las mismas de 28 Agentes.

Cuarto. La distancia más corta desde la que se pudo producir algunos de los disparos al lugar en el que se encontraba Iñigo Cabacas no es inferior a 22 metros. Por tanto, de la información de que disponemos se desprende que no se disparó a bocajarro como se ha dicho".

Polizia jardueraren arrazoiei dagokienez, hauxe gaineratu zuen:

"Quiero recordarles que el objetivo fundamental de la intervención era acceder lo antes posible a la plazoleta para recuperar a los heridos que hasta ese momento se pensaba que seguían en el lugar y poder prestarles atención médica, con los recursos sanitarios que se habían trasladado a la zona.

Por eso y para garantizar la seguridad de los agentes que seguían siendo objeto del lanzamiento de botellas y otros objetos se procede a efectuar disparos, primero de salva y después de pelotas de goma al objeto de disolver a las personas que con un alto nivel de agresividad y carga de alcohol estaban agrediendo a la Ertzaintza e impidiendo que cumpliera con su obligación.

Una vez que los agentes logran despejar la zona, se localiza a Iñigo Cabacas, que está siendo auxiliado por una mujer. Para entonces SOS Deiak ha recibido una llamada en la que solicita la presencia de una ambulancia.





Ante el avance de los agentes, tanto los agresores como otras personas allí presentes abandonan la plazoleta, unos hacia el interior de los bares de la misma y otros en dirección Licenciado Poza por el callejón.

Esto permite que las ambulancias solicitadas con anterioridad puedan acceder a las inmediaciones de la plazoleta y, tras atender al herido, proceder a realizar su evacuación.

Con posterioridad a la evacuación del herido, acceden al lugar varias dotaciones policiales que acordonan la zona de los incidentes y neutralizan la presencia de agresores en el tramo de la calle Licenciado Poza comprendido entre su intersección con la calle María Díaz de Haro y la calle Doctor Areilza”.

8.3. Gertakariak jazo zirenean istiluen aurkako materialaren erabilera arautzen zuten jarraibideei dagokienez, sailburuaren agerraldian honako hau adierazi zen:

“...las recomendaciones sobre la utilización de material antidisturbios no se han modificado en mi mandato, aunque tenemos que decir que permanentemente hemos estado reclamando a los mandos que transmitan a todos los agentes la máxima prudencia, el máximo control, la máxima contención en su actuación y en la utilización de material antidisturbios”.

Ertzaintzako buruaren agerraldian, kontu hori ere joratu zen eta pilotak jaurtitzen dituzten eskopeten ezaugarri teknikoak azaldu ziren, honelaxe:

“...la bocacha de la escopeta tiene tres posiciones que permiten lanzar más o menos lejos las pelotas.

Las posiciones de dichas bocachas son las de S (suave), medio (M) y fuerte (F). Las recomendaciones que se imparten para el uso de este tipo de material señalan que la distancia adecuada para disparar las pelotas de goma es de más de 25 metros (suave); más de 35 (medio) y más de 60 (fuerte). Y que el disparo debe producirse apuntando por debajo del estómago.

Estos protocolos de seguridad son impartidos durante la formación en Arkaute a todos los alumnos y reiterados en todos los cursos de reciclaje que se realizan”.

8.4. Istiluen aurkako materialaren azterketari eta hartu beharreko neurriei dagokienez, sailburuaren agerraldian zera azaldu zen:

“Las lesiones provocadas de acuerdo con el informe preliminar de la autopsia por una pelota disparada por la Ertzaintza son un hecho no deseado por nadie que hay que intentar evitar por todos los medios en el futuro.

Es verdad que hay que tener en cuenta que la Ertzaintza y otras policías han utilizado y utilizan centenares de veces material antidisturbios y pelotas de goma, sin que se hayan producido estas trágicas consecuencias, pero es evidente que todos tenemos que hacer autocrítica, revisar y mejorar los procedimientos y controles de actuación, para que hechos como éstos no se vuelvan a producir jamás.

(...)

...cuando se produce un hecho tan grave como el que nos ocupa, con consecuencia de muerte dramática de un inocente, es evidente que algo ha fallado. Por tanto, tenemos la





responsabilidad de revisar todos los procedimientos de actuación y recomendaciones de uso del material antidisturbios para evitar en lo posible situaciones como las que estamos analizando”.

Herrizaingo Sailak bidali zizkigun agirien arabera, sailburuak honela eman zuen hartuko ziren neurrien berri:

“1. Como ya he dicho, poner a disposición de la jueza toda la información de que dispongamos en todo momento y ofrecerle, como ya hicimos ayer, un equipo de ertzainas que continúe bajo sus órdenes directas y con dedicación plena la investigación sobre las lesiones que produjeron la muerte a Iñigo Cabacas.

Pensamos que el hecho de que la investigación sea dirigida por la Justicia y con la máxima colaboración de la Ertzaintza es la mejor forma para acallar a aquellos que de forma malintencionada quieren arrojar dudas sobre el rigor de esta investigación.

2. Quiero anunciarles que ayer mismo ordené que se abra el correspondiente expediente interno a todos los agentes que intervinieron directamente en esta actuación policial, al objeto de determinar si su actuación se ajustó o no a los procedimientos de trabajo de la Ertzaintza y, en su caso, depurar responsabilidades de acuerdo con el reglamento interno de nuestra policía.

3. He dado instrucciones al viceconsejero de Seguridad y al Jefe operativo de la Ertzaintza para que se cree un grupo de trabajo para que adecuen todas las pautas de actuación y se recojan en una instrucción elaborada al efecto.

4. El viceconsejero de Seguridad va a dictar una instrucción que cree un equipo auditor de todas aquellas actuaciones de la Ertzaintza donde se produzcan heridos que, preservando la instrucción penal o disciplinaria sobre esos sucesos, evalúe la normativa, medios y formación a efectos de su adecuación y mejora.

5. También he ordenado que se elabore de forma inmediata una instrucción para reforzar el control sobre el material antidisturbios y su utilización.

6. Quiero anunciarles que a partir del 1 de enero de 2013 todas las Unidades de Seguridad Ciudadana tendrán prohibida la utilización de escopetas lanzaderas de pelotas. Es el tiempo que consideramos necesario para dotarnos de nuevo material antidisturbios y formar a los agentes en la utilización del mismo.

Durante lo que queda de año 2012, todas las Unidades de Seguridad Ciudadana tendrán limitada y restringida expresamente la utilización de escopetas lanzaderas de pelotas y se reiterará que el empleo de las mismas sólo se realizará por orden del mando responsable de la actuación. Insisto, a lo largo de este año, progresivamente, se irán sustituyendo las escopetas lanza pelotas por nuevos lanzadores menos lesivos y más adecuados.

7. Las escopetas lanza pelotas seguirán utilizándose en todo caso por las Unidades especializadas, Brigada Móvil y Brigada de Refuerzo de Seguridad Ciudadana en ocasiones excepcionales, y también reiterando el estricto control de su uso y por orden de los mandos competentes. Estas unidades, desde el 1 de enero de 2013, también contarán con otros medios antidisturbios para lo cual el jefe de la Ertzaintza propondrá la adquisición y compra de los mismos.

Quiero en todo caso aprovechar para aclarar que no es cierto que el uso de pelotas de goma esté prohibido por la Unión Europea. Y quiero también decir que materiales antidisturbios como el gas que se utiliza en otros países y también por otras policías de España están expresamente prohibidos desde hace tiempo en la Ertzaintza.





Quiero aclararles que el cambio en el material antidisturbios es una medida que ya estaba prevista hasta tal punto que ya se han adquirido los lanzadores necesarios para iniciar la formación en la academia de Arkaute. En todo caso, les anuncio que aceleraremos, como ya he dicho, al máximo, la compra de los nuevos materiales y la formación de los agentes en su uso.

8. Siguiendo la recomendación de este Parlamento, todos nuestros agentes uniformados a partir del 1 de junio portarán de manera visible un número de identificación.

9. Quiero recordar, asimismo, que la Academia de Arkaute ha dado un impulso importante a la formación de los y las nuevas ertzainas. Por eso se tomó la decisión de ampliar el periodo de prácticas de los nuevos y las nuevas agentes de doce a dieciocho meses.

Esta medida, que se ha puesto en práctica con la 23 promoción –cuyos integrantes salieron a la calle el pasado mes de diciembre– se ha adoptado para que las prácticas de los ertzainas no se realicen únicamente en las comisarías, como ocurría anteriormente. Ahora, los y las agentes realizan la mitad de sus prácticas en la División de Tráfico, la Brigada de Refuerzo y la Brigada Móvil.

En concreto, en esta última completan dos semanas de formación intensiva y a continuación se incorporan al resto del grupo, con el que comparten entrenamientos e intervenciones en la calle. Ello redundará, sin ninguna duda, en una mayor formación de los miembros de cualquiera de las unidades de la Ertzaintza a la hora de hacer frente a altercados de orden público.

(...)

Para finalizar, quiero comprometerme a ir informado permanentemente a los diversos portavoces de los grupos parlamentarios del avance de la investigación, así como de las conclusiones a las que se vaya llegando, en todo caso, recordando que a partir de ahora la investigación seguirá avanzando bajo la dirección y control de la jueza competente”.

9. Herrizaingo Sailak eman zigun informazioan ez zitzairen erantzun indarraren erabileraren barne-kontrolaz ardura zitzaizkigun kontuei eta ez zitzaizkigun eman puntu horretan gure gomendioak betetzen zirela bermatzeko eskatu genituen agiriak. Era berean, ez zen argitu indarra erabili aurretik agenteek erabiliko zutela jakinarazi ote zuten. Azkenik, ez zen ezer adierazi kasu hartan gomazko piloten erabilerari buruzko jarduera-protokoloak ezarri ziren moduz, tiroak egin zireneko gutxieneko distantziari egindako aipamena izan ezik, 8.2. atalean hitzez hitz eman dugun moduan.

Herrizaingo Sailak ez zigun inolako informaziorik eman Gasteizko polizia jarduerari buruz -bertan Xuban Nafarrate larriki zauritu zuten- eta ez zigun azaldu zergatik ez zion erantzunik eman horren gainean bidali genion eskaerari.

10. Eman ziguten informazioa eta poliziaren bi jarduera horien harira Legebiltzarrean egindako agerraldiak aztertu ondoren, atera genituen behin-behineko ondorioak jakinarazi genizkion Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sail berriaren titularri –ondorioak, oro har, bat datoz ebazpen honetako edukiarekin—. Hala egin behar genuela uste genuen, aurreko Herrizaingo Saila berrantolatzearen ondorioz bere gain hartu zituen funtzioak kontutan hartuta.





Bidali genion lankidetzeta-eskaeran galdatu genion eman ziezazkigula gaiari buruzko iritzia eta gabeziak antzeman genituen atalen gaineko informazioa.

Ondorioetan, gainera, Arartekoarekin lankidetzan aritzeko duen legezko betebeharra eta elkarrekiko leialtasun instituzionalaren printzipioa aldarrikatu genituen, sail berri honek eskatu genuen informazio oro eman ziezagun, informazio hori eman ezean aipaturiko betebeharrak eta printzipioaren aurka egiten zela, eta, halaber, gure eginkizunak betetzeko oztopo handia bihurtzen zela ulertuta.

11. Gure eskaerari erantzuteko, sailburuak lehenengo eta behin agiri hartan ezarri genuen erantzun-epea luzatzeko eskatu zigun, eta, erakunde honek eskaera onartu zuen.

Ondoren bidalitako erantzun-idatzian, espedientean daukagun esku-hartzea eteteko eskatu digu, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikuluaen aurka doala argudiatuta. Bere ustez, espedientean egindako informazio-eskaera eta helarazi dizkiogun behin-behineko ondorioak ere manu horren aurka doaz.

Jarraian laburbildu ditugu bere eskaeraren arrazoiak eta gure behin-behineko ondorio batzuen harira adierazi digun jarrera:

a) Sailburuaren ustez, lehenik, behin-behineko ondorioetan gure esku-hartzea arrazoitu eta mugatzeko azaldu genituen arrazoiak -gogoeten lehenengo atalean adierazitakoekin bat datozenak- ez dira nahikoak Arartekoak ez diezaion kasu egin jarduera eteteko duen legezko betebeharrari, zigor-diligentziak bideratzen ari direla kontuan hartuta.

Horren harira, bere esanean, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikuluari buruz egin dugun interpretazioa ez da koherentea Konstituzioak oinarritzko eskubideak eta askatasunak bermatzeko ezartzen duen sistemarekin, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ulertzen dugun bezala. Bere iritziz, interpretazio hori ez dator bat legediarekin eta ez da zuzena Konstituzioko Auzitegiari dagokionez *“ya que el acceso al mismo queda condicionado en el recurso de amparo al agotamiento de la vía de la jurisdicción ordinaria”*.

Gainera, adierazi duenez, espediente honetan daukagun esku-hartzearen helburua gertaera zehatz batzuk ikertu eta finkatzea da, gertaera horiek judizialki ikertzen ari diren arren, eta ez, ordea, arazo orokorrak ikertzea, besteak beste, istiluen aurkako materiala, Ertzaintzak istiluen aurkako esku-hartzeetan izan beharreko ohiko praktika edo Arartekoak egindako gomendioen betetze-maila. Bere ustez, azken alderdi horietan kokatu liteke gure jardueraren prebentzio-helburua. Bere esanean, gomendioen betetze-maila egiaztatzeari buruz egin dugun apelazioa erretorikoa da gehienbat, ikerketa ez baitago ohiko praktikarekin lotuta, gertaera oso zehatz batzuekin baizik. Apelazio hori indar publikoaren erabilera bidezkoa izan ote zen aztertze bide gisa erabili dugula dio eta, bere ustez, zigor-azitegiek argitu behar dute hori. Premisa horiek



abiapuntutzat hartuta, gure esku-hartzeak zigor-ikerketara oztopatzen duela iruditzen zaio eta gertaerak bide judicialari jarraiki argituko direla aurreratzen du.

Azkenik, gure erakundea sortzeko legearen 13.1 artikulua eta Herriaren Defendatzaileari buruzko apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren antzeko manua (17.2 artikulua) literaltasuna alderatzen ditu, honako ondorioa aterata: gure legean ez dago berariaz aurreikusita Herriaren Defendatzailearena bezalako gaikuntza, bide judicialan dauden kexetan azaldutako arazo orokorrak ikertzeko, eta, beraz, Arartekoak, Estatuko bere homologoak ez bezala, eskumen hori ez duela pentsa liteke. Hala ere, bere ustez, gure eskumena onartuko balitz ere, arazo orokorrak ikertzeko gaikuntzak ez dio erakundeari baimenik ematen *"para examinar los hechos acaecidos en una concreta actuación policial que se encuentra siendo investigada judicialmente"*.

b) Bestetik, baztertu egiten du Herrizaingo Sailak espediente honetan lagundu ez izana, horixe adierazi baikenuen behin-behineko ondorioen idazkian. Bere aburuz, bidali genion eskaerari erantzun izan balio, zigor-prozesuaren antolamenduan sartzen diren beste legezko betebeharrak batzuk urratuko ziratekeen.

Zehazki, adierazi duenez, lankidetzaz-falta hori argudiatzeko zera azaldu dugu, ez zaigula bidali *"judicializatutako ikerketei buruz Herrizaingo Sailaren eskuetan egon litekeen informazio guztia"*. Sailburuaren ustez, hala eta guztiz ere, ezin zaigu informazio hori helarazi; izan ere, bere esanean poliziaren ikerketa *"ha derivado en un atestado que se ha incorporado a unas diligencias penales y, como tales, están sujetas a las reglas contenidas en los artículos 301 y 302 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal"*. Gaineratutakoaren arabera, *"respecto a las indagaciones y diligencias que se hayan llevado a cabo por decisión del juez resulta todavía más evidente que se trata de información que la administración no puede remitir al Ararteko"*.

Hori dela eta, "Sailak legez eman ahal digun" informazio oro eman digula ondorioztatu du.

Nolanahi ere, onartu du ez zigutela eman Vitoria-Gasteizko polizia-jarduerari buruzko informaziorik. Horren harira adierazi duenez, *"se trata de corregir ahora adjuntando al presente escrito la información que al respecto fue facilitada en el Parlamento Vasco, incluyendo un video de la actuación policial de referencia"*.

c) Sailburuaren ustez, ezagutu nahi ditugun alderdiei buruzko informazio-faltatik ezin da ondorioztatu *"la existencia de un uso de la fuerza desproporcionada e imprudente, o que no se respetan las recomendaciones del Ararteko"*, bere esanean, guk behin-behineko ondorioetan adierazi dugun bezala. Dioenez, *"ello implica instaurar la 'ficta confesio' en un procedimiento en el que difícilmente tiene cabida"* eta *"sustituir la verdad por unas"*



apreciaciones apriorísticas, que podrían verse además desmentidas por la verdad judicial que determina la jurisdicción penal”.

d) Indarraren erabilerari dagokionez, era berean, zera argudiatu du: urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean *“se mezclan verdaderas recomendaciones de orden práctico con recordatorios de exigencias contenidas en el ordenamiento jurídico”*. Gaineratu duenez, *“difícilmente puede extraerse del documento del Ararteko una concreta recomendación en los dos casos que nos ocupan sin pronunciarse directamente sobre aquello que está siendo examinado por los Tribunales de Justicia”* eta *“pretender valorar si existió un resultado lesivo debido a la fuerza empleada en desacuerdo con los parámetros de la recomendación general 7/2011, nos lleva indefectiblemente al campo del Código Penal, que es lo propio de la labor del juez instructor”*.

e) Gure behin-behineko ondorioetan baztertu egin genuen Herrizaingo Sailak Bilboko polizia-jardueraren barne-ikerketarekin ez jarraitzeko hartu zuen erabakia, eta ikerketari berriz ekiteko eskatu genion Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sail berriari. Sailburua ez dago ondorio horrekin ados.

Bere jarrera azaltzeko argudiatu duenaren arabera, ezinezkoa da epailearen zerbitzuko polizia judiciala egiten ari den lanean eragingo duen barne-ikerketa bat egiten jarraitzea. Adierazi duenez, ikerketa eteteak *“protege clarísimamente la finalidad última de la recomendación del Ararteko, que es evitar que, ante quejas por supuestos abusos policiales, no se realice una indagación suficiente e imparcial o se demore tal indagación por nadie aduciendo excusas dilatorias que puedan dejar sin sentido indagaciones futuras”*. Bere ustez, *“la indagación judicial suple con creces cualquier instrucción interna en cuanto a que es igualmente inmediata, presenta mayores garantías para las partes implicadas y no hay duda de la imparcialidad”*.

Horren harira adierazi genituen eragozpenak direla-eta, honakoa gaineratu du: *“No es preciso que el juez instructor exija formalmente a la Ertzaintza que no se bifurque la investigación policial dejando al margen de su poder de dirección parte de la misma, porque se trata de algo obvio”*.

Hori guztia dela eta, bukatzeko, ahal den neurrian erakunde honek barne-ikerketari buruz egindako gomendioak bete direla baieztatzen du, *“mediante la indagación inicial y al elaborar el atestado que ha dado origen a las diligencias penales, así como al haber implementado medidas para la mejora del servicio policial a la vista de lo acontecido”*.

f) Behin-behineko ondorioetako batean, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailari eskatu genion Cabacas eta Nafarrate familiei informazio zehatza eta ahalik eta xehetasun gehienekoa eman diezaiela dagozkien polizia-jarduerari buruz, baldin eta, dirudien bezala, ez badago bide judizialean hori eragozten duen muga espezifikorik. Sailburuak dio bere sailaren zeregina ez dela *“procedura judicialaren egoerari buruz”* informatzea. Gaineratu duenez:



"Las obligaciones de la policía judicial y de los organismos jurisdiccionales respecto a la información y asesoramiento a las víctimas ya se contemplan en la ley de enjuiciamiento criminal. Lo anterior no impide, pero limita, la labor de la administración policial al ponerse en contacto con víctimas o damnificados". Amaitzeko honakoa dio: *"Entendida con tal circunscripción puede valorarse positivamente la sugerencia del Ararteko"*.

12. Erantzun idazkian, sailburuak honela justifikatu du Herrizaingo Sailak Iñigo Cabacasen heriotzaren ondoren hartutako neurriak nola garatu eta ezarri ziren guri ez jakinarazi izana: *"el escaso tiempo que ha existido desde su adopción y que hace prematuro efectuar una evaluación cerrada a día de hoy, dado que todavía están en marcha"*.

Adierazi digunez, neurri horiek garatzen ari dira eta hiru jarraibidetan zehaztu dira, Ertzaintzaren Ekintza Batzordeari eta istiluen aurkako materiala erabili eta kontrolatzeko araudiari dagokienez.

Gainera, batzorde horren osaerari eta funtzioei buruzko informazioa eman digu. Puntu honetan eman digun informazioa bat dator Herrizaingo Sailak beste espediente batean eman zigunarekin (hura behin-behineko ondorioetan kontuan hartu genuen).

Halaber, istiluen aurkako materiala erabili eta kontrolatzeari buruzko bi jarraibideen berri ere eman digu. Adierazi duenez, bertan agertzen dira araudian aztergai den materialaren zerrenda, indarra erabiltzean legez bete beharreko printzipio orokorrak, material bakoitza erabiltzeko irizpideen zehaztasunak eta ordena publikoko gertaeren bideo-zaintzarekin eta materialaren eta haren erabileraren kontrolarekin lotutako beste alderdi batzuk.

Haatik, ez du esaten alderdi horiek jarraibideetan nola jasota dauden, materiala erabiltzeko barne-kontrolaren kasuan izan ezik. Azken horri dagokionez, Aginte eta Kontrol Zentroari erabileraren berri ematen zaiola eta materiala nola erabili den azaltzen duen txosten zehatza egiten dela azaldu du. Neurri hori bat dator, hein batean, erakunde honek indarraren erabilera barrutik kontrolatzeko gomendatu dituen neurriekin.

Albo batera uzten baditugu aipatutako informazioa, Herrizaingo sailburuak 2012ko apirilaren 24an eta maiatzaren 22an Legebiltzarrean egindako agerraldiak (Vitoria-Gasteizko polizia-jarduera azaltzeko) eta sailburuak azken agerraldi hartan erakutsi zuen bideoa (gure behin-behineko ondorioetan kontuan hartu genuena, informazio publikoa zelako), ez zaigu eman gure ondorioetan aipatu ditugun gai zehatzei buruzko datu gehiagorik. Orokorrean ez zaie erantzun gai horiei eta batzuek, gainera, ez daukate zerikusirik polizia-jardueraren ondoriozko prozedura judizialekin. Era berean, ez zaigu eman eskatu genuen dokumentazioa, Herrizaingo Sailak indarraren erabilerari buruzko barne-kontrola egitean urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazi genuen jokamoldea bete ote duen egiaztatzeko, eta ez zaigu jakinarazi



Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren iritzia, behin-behineko ondorioetan proposatu genituen prebentzio-neurriei buruz.

Gogoetak

1. Legediak Arartekoari esleitzen dizkion prebentziozko funtzioak erabiltzean, erakunde honek hainbat neurri proposatu ditu polizi jarduerak oinarrizko eskubideak errespetatzearekin bat datozen parametroetara egokitu daitezzen. Bereziki azpimarratu dugun neurri horietako bat da poliziaren arduradunek ofizioz hasi behar dutela ikerketako barne-prozedura bat, agenteren batek agian oker jokatu duela jakiten duten bakoitzean, gertatutakoa argitzen ahalegintzeko, jokaera hori behar bezalako jarraibideen barruan jazo ote zen egiaztatzeko eta, hala badagokio, neurri egokiak hartzeko, diziplina neurriak edo bestelakoak.

"Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistema" izenburuko urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasota dago gai horren gainean dugun iritzia (II.1.1. atala); agirian bertan azaltzen denez, iritzi hori erakunde honek ildo berean lehenago egindako beste gomendio eta erabakietatik sortutakoa da.

Gomendio horretan, poliziaren ikerketa jada abian dagoen zigor prozedura batekin batera gertatzeko aukera azertu dugu, eta, kasu horretan, erakunde honek esku hartzeko duen eremua mugatu dugu.

Gai horietako lehenengoari buruz, zera aipatu dugu:

"Ohikoa da, polizia jardueri buruzko kexak eragiten dituzten egitate batzuk, aldi berean, jurisdikzio penalararen azterketa pean egotea, esku-hartzea gertatu bitartean atxiloketa bat edo atxiloketarik gabeko egozte penal bat gertatu delako edo nahastutako pertsonen salaketa penala jarri dutelako polizien kontra, edo inguruabar biengatik.

Halako kasu askotan ohikoa da, halaber, gertakariak argitzeko egin duten ikerketari buruz galdetzen dugunean, administrazioek prozedura judicial bat izapidetzen ari direla eta egoera horrek ikerketa edo are Arartekoak jardun ahal izatea baldintzatzen duela esatea.

Zalantzarik gabe, kexa bat eragin duten gertakariengatik prozedura penal bat bideratzeak zenbait muga ezartzen dizkie polizia administrazioei gai horretan, hala nola prozesuan epaitzen ari diren jokabideak zigortzeko galarazpena, zehapen ebazpena eman ahal izateko auzitegien epaiari itxaron beharra eta jurisdikzio ordena horretako epai irmo batek halakotzat jotzen dituen gertakariak frogatutzat jotzea. Hori dena, ordena penala administrazio ordenari nagusitzeko printzipioa aplikatzearen ondorioz.

Hala ere, uste dugu inguruabar horrek ezin diela galarazi administrazio horiei salatutako polizia jarduera ikertzea, ezta behar diren parametroen araberakoa izan dela egiaztatzea ere.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak, gure iritziz, planteamendu horren alde egiten du, prozedura penala polizien aurkakoa den kasuei buruz hitz egiten duenean honela baitio: *'Euskal Herriko Poliziako kideen aurkako prozedura penala hasteak ez du galaraziko egitate horiengatik lehenagoko argibideak edo legokiokeen diziplina espedienteak agintzea eta, beharrezkoa balitz, espedienteak egin zaienak behin-behinean kargugabetu eta egokiak diren gainerako badaezpadako neurriak hartuko dira.*





Halarik ere, prozedura horiek ez dira behin betiko ebatziko arlo penaleko epaia irmoa izan arte, eta hark dakarren egitate frogatuen adierazpenak administrazioa lotuko du' (91.5 artikulua).

(...)

Polizien aurkako salaketa judiziala egondako kexa askotan, auzitegien epaiaren ondoren ez zaio ikerketari berrekiten salaketa artxibatzen bada edo epaia absoluziokoa bada. Berriz esan behar dugu gertakari askok garrantzi penalik ez izateak ez dakarrela berez polizia jardueraren zuzentasuna, bete behar zituen arauen arabera izanaren ikuspegitik, ezta bestelako erantzukizunik ez egotea ere, hala nola diziplinakoa, epaitzeko eremu desberdinak direlako.

Hori guztia dela-eta, uste dugu justiziak esku hartzen duen kasuetan polizia agintariak hastapeneko ikerketa bat egin behar dutela, adierazi dugunaren arabera, eta epaiaren ondoren ere poliziaren portaeraren azterketa zorrotza egin behar dutela, arlo penalean egindako epaiketa adierazitako ikuspegitik egindako poliziaren jokabidearen balorazioarekin osatuz" (II.1.1.b atala).

Kasu horietan Arartekoak esku hartzeko duen esparruari dagokionez, zera azaldu dugu:

"Arestian adierazi dugunez, Arartekoak eskatzen dienean administrazioek ez ikertzeko edo eskatutako informazioa ez emateko erabili ohi dituzten arrazoiak bat, gure esku-hartzea erabat arbuatzea da, argudiatuz gertakariari lotutako prozedura penal bat ari dela izapidetzen.

Kexa eragin duen polizia jarduera berari lotutako gertakariengatik prozedura judizial penala izapidetzeak, jakina, muga handiak dakarzkio erakunde honi, batez ere otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 artikulutik eratorriak, honela baitio: *'Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko'*.

Hala ere, uste dugu artikulua horrek ez duela guztiz baztertzen gure esku-hartzea halako kasuetan. Zalantzarik gabe, jurisprudentzia penalak ezagutzeko gordetako kontu zehatzak aztertzea eta haiei buruzko iritzia ematea galarazten dizkigu. Baina, gure irizpidearen arabera, galarazpen horrek ez digu ukatzen halako kexetan gure esku-hartzea kokatzen dugun prebentzio arloan jardutea, polizia arduradunei adierazi ditugun arauen arabera ikertzeko eskatuz eta arau horiek bete direla egiaztatuz.

Gure aburuz, aipatu manua ez da oztopoa erakunde honek polizia arduradunek burutu duten ikerketari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Ezta, gure iritziz, prozedura judizialean sartzen ez diren kexaren beste alderdiak aztertu edo kasuan Arartekoak euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoei zuzendu dizkion beste gomendio orokorrak bete diren egiaztatu ahal izateko, herritarrei dagozkien eskubideen aurkako balizko jarduerak prebenitzeko lanaren esparruan.

Gure ustez, azken batean, inguruabar hori ezin liteke oztopoa izan administrazioek helburu horrekin burutu dituzten jarduerak Arartekoari jakinarazteko.

Gure aburuz, daukagun interpretazioa bat dator Konstituzioak (art. 43 eta 54.) ezarritako askatasunak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko sistemarekin; izan ere, haren arabera jurisdikzio arrunta, Konstituzio Auzitegia eta herriaren defendatzailea sistema ixteko tresnak dira. Hortaz, Konstituzioak osagarri eratzten ditu erakunde horiek, eta haien esku-hartze esparrua ordenamendu juridikoak bakoitzari emandako eginkizunen arabera dago ezarrita; beraz, haien jarduera bat etor liteke kasu berean, zeinek bere xedea izanda bada ere".





Espediente honetan aipatzen diren bi polizia esku-hartzeetan burutu dugun jarduera hertsiki prebentziozkoa den esparruan kokatu da eta ardura handiz errespetatu ditugu gai honetan esku-hartze judiziala izatearen ondorioz, gure ustez, Ararteko erakundearentzat sortzen diren mugak, lehen azaldu dugun moduan. Aurrekarietan islatuta geratu den bezala, bi kasuetan ezartzekoak iruditzen zitzaizkigun gure gomendioak nola bete diren egiaztatu ahal izateko behar genuen informazioa besterik ez diogu eskatu lehenengo Herrizaingo Sailari eta, gero, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailari.

Horregatik, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean azaldu genituen arrazoiak –hitzez hitz transkribatu ditugunak- oinarritzat hartuta, baztertu egin behar ditugu Herrizaingo Sailak adierazi zizkigun eragozpenak, Bilboko polizia jardueraren inguruan esku hartzeko aukerarik ez genuela adieraziz, uste baitu otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1. artikulua mugatu egiten gintuela, gaia bide judizialean dagoelako.

Arrazoi horiek direla eta, baztertu egin behar ditugu Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak horren harira adierazi dizkigun eragozpenak. Berriz ere diogu Arartekoaren zeregina ez dela zigor-ikerketan judizialean ikertzen ari diren gertaerak finkatzea, eta are gutxiago, zigor-ikuspegitik baloratzea. Arartekoaren zeregina da, aitzitik, espediente hau irekiarazi zuten bi polizia-jardueretan bere gomendioak nola bete diren egiaztatzea. Hori dela kausa, espediente honetan izan dugun esku-hartzea funtzio horretara mugatu da hertsiki. Gure ustez, gure gomendioak jarduera zehatz batzuetan bete ote diren egiaztatzeak ez du ezertan aldatzen gure esku-hartzearen prebentzio-izaera, eta ez dio izaera aldarazten. Erakunde honek prebentzioaren ikuspegitik egin ditzakeen jarduerak oso anitzak dira eta ez dira mugatzen, inola ere, eremu material jakin bateko arazoak zehaztera, kasu zehatzekin loturarik ez duen plangintza orokorrean oinarrituta, sailburuak ustez ulertzen duen bezala. Hori, noski, aukera bat da, baina egin ditugun gomendioak kasu zehatz batean nola aplikatu diren egiaztatzea ere beste aukera bat da.

Sailburuak dioenez, Herriaren Defendatzaileari buruzko araudiak bide judizialean dauden kexetan azaldutako arazo orokorrak ikertzeko gaitzuntza ematen dio berriaz defendatzaileari, eta Arartekoa arautzen duen legeak ez du halakorik egiten. Gure ustez, argudio horrek ez dauka garrantzirik Arartekoak arlo horretan dituen eskumenak zehazteko orduan. Arrazoitu dugun bezala, gure eskumenak gure arauditik bertatik datozela uste dugu, eta gure araudiak ez du baztertzeko espediente honetan egiten ari garena bezalako esku-hartzerik.

Berriro diogu, gure iritziz, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua egin dugun interpretazioa bat dator Konstituzioak oinarritzeko eskubide eta askatasunak bermatzeko ezartzen duen sistemarekin. Babes eskeko errekurtsioak baliatzeko aurretik ohiko bide judiziala agortu behar izateak, gure ustez, ez du baliogabetzen gure interpretazioa, ez eta gure ondorio hau ere: ohiko jurisdikzioa, Konstituzio Auzitegia eta Herriaren Defendatzailea konstituzionalki erakunde osagarri gisa eratuta daudela, eta, horregatik, gerta



litekeela kasu zehatz batean horien jarduera batera gertatzea, helburu desberdinak izan arren.

Aurreko arrazoi horiexengatik, ezin dugu onartu lehenbizi Herrizaingo Sailak eta gero Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak hartutako erabakia, alegia, Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zutenean burututako polizia jardueraren barne-ikerketara ez jarraitzea, gertakariak bide judizialean ikertzen ari direla adieraziz.

Gure aburuz, halako gertakari larri bat jazotzean, hau da, funtzionario publikoen jardueratik pertsona bat hiltzen denean -Herrizaingoko sailburuak berak errugabe baten heriotzatzat jo zuen Legebiltzarreko bere agerraldian- edo polizia jarduera batean sortutako kalte fisiko larriak salatzen direnean, abian jarri behar dira demokrazia-sistemak oinarrizko eskubideak babesteko dituen mekanismo guztiak, eta horietako bat, berriro diogu, Ararteko erakundea da.

Gure inguruko herrialdeetan ere ikerketa judizial bat egotea ez da oztopo izaten beste erakunde batzuek ikertu ahal izateko³. Ikerketa judizialaren helburua da egon daitezkeen zigor erantzukizunak zehaztea; aldiz, erakunde inpartzial eta independenteek -herriaren defendatzaileak, aipatutakoen moduko *ad hoc* erakundeak edo polizia administrazioaren barneko organo edo erakundeak izan-bideratzen duten ikerketaren helburua da polizia jardueraren zertzeladak berehala argitzea, baita ere aztertzea ikertutako jardueran zein protokolo, jarraibide edo arau erabili diren, horiek denak poliziaren indarraren erabilera arautu behar duten printzipio eta arauetara egokitu diren eta behar bezala bete diren. Nahiz eta auzitegiek zigor erantzukizunik egozterik ez dagoela ebatzi, gerta liteke ombudsman batek edo beste erakunde batek egindako ikerketa ez judizialak poliziaren jarduera gaitzestea, funtzionamendu arauak edo administrazio onaren printzipioa eta arauak urratzeagatik, eta, orduan, administrazioiko zigor-neurriak har daitezten eskatzea. Horregatik guztiagatik, defentsa-erakunde edo ombudsman batek edo beste erakunde batek sustatutako ikerketa guztiz bateragarria da prozedura judizialarekin, eta, horrez gain, hainbat kasutan (hizpide dugun honetan bezalaxe, polizia jarduerak pertsona baten heriotza eragin baitzuen) oso beharrezkoa da, Zuzenbide Estatu Demokratikoak eskubideak bermatzeko dituen mekanismo eta ahalmen guztiak erabil ditzan eta ezin besterenduzko printzipio hau baliaraz dezan: polizia-administrazioak legearen eta indarraren erabilera erregulatzen duten arau eta protokoloen mende egon behar du, zuzenbide penalaren mugen mende, administrazio onaren beharren mende, administrazio praxi okerra saihestuz.

Gainera, Legebiltzarreko agerraldian Herrizaingoko sailburuak barne-ikerketa egiten ez jarraitzeko erabakia oinarritzeko eman zituen arrazoiek ez lukete balioko, gure ustez, erabaki hori justifikatzeko. Zehazki hauxe esan zuen: "e/

³ Adibide gisa, Erresuma Batua eta Iparraldeko Irlanda aipa ditzakegu. Bertan, funtzio hori esleituta dute Poliziaren aurkako Kexen Batzorde Independentek eta Polizia Jardueren Batzordeak Iparraldeko Irlandan, hurrenez hurren.



hecho de que la investigación sea dirigida por la Justicia y con la máxima colaboración de la Ertzaintza es la mejor forma para acallar a aquellos que de forma malintencionada quieren arrojar dudas sobre el rigor de esta investigación". Ikerketa judzialak ez du loturarik barne-ikerketarekin; horregatik, barne-ikerketarik badagoen ala ez kontuan hartu gabe hasi eta jarraitzen da ikerketa judziala. Hori dela eta, erabaki hori hartzean dirudienez lortu nahi den helburua -ikerketa independentea eta zorrotza egotea eremu judizialean- ikerketa judziala bera abian jarrita lortuko litzateke, barne-ikerketa baztertu beharrik gabe. Adierazi dugunez, bi ikerketak, gure ustez, plano ezberdin eta osagarrietan kokatzen dira; hortaz, barne-ikerketa baztertzeak ez luke ezer eskainiko, gure iritziz, aipatutako ikuspuntutik.

Herrizaingo Sailak berak, hasiera batean, bi ikerketak batera existitu eta osagarriak izan daitezkeela ulertu zuela zirudien, izan ere, sailaren titularrak, apirilaren 12ko Legebiltzarreko agerraldian barne-ikerketa bat hastea agindu zuela adierazi ostean, zera aipatu zuen: *"seguirá abierta aportando toda la información a la jueza que lleva el caso"*.

Gure ustez, Bilbon jazotakoen moduko gertakari larriak saihesteko neurrietako bik, Herrizaingo sailburuak Legebiltzarreko agerraldian iragarri zituenak, erakunde honek duen iritzia berretsiko lukete, hau da, esku-hartze judzialak ez diela eragozten polizia arduradunei barne-ikerketa bat egitea, adierazi ditugun mugak errespetatuz.

Zehazki, honako neurriez ari gara: zaurituak eragiten dituzten polizia jarduerak ikuskatzeko auditore talde bat sortzea, zigor edo diziplinazko instrukzioari dagokionez jarduera horiek araudiarekin, bitartekoekin eta prestakuntzarekin bat ote datozen eta hobetu daitezkeen baloratuko duena; eta Bilboko polizia jardueran zuzenean esku hartu zuten agente guztiei barne-espeditante bat irekitzea, haien jarduera Ertzaintzaren lan prozeduretara egokitu zen ala ez zehazteko. Gure iritziz, bi neurri horiek espeditante honetan izan dugun esku-hartzearen eremu berean kokatzen dira eta bertan kokatu beharko litzateke, guk uste, barne-ikerketa ere. Berritri diogu, aztergai ditugun bi polizia-jarduera horiek bete beharreko parametroetara egokitu ote ziren egiaztatzeraz mugatzen gara eremu horretan.

Hori guztia dela eta, baztertu egingo dugu Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak egin digun eskaera, espeditante honetan dugun esku-hartzea eten dezagun.

2. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean azaldu genuenez, poliziak oker jardun duela salatzen denean edo hori pentsatzeko arrazoizko zantzuren bat dagoenean, berehala eta alderdikierarik gabe ikertu behar da. Gainera, ikerketaren edukiak gertakariak argitzeko egokia eta nahikoa izan behar duela uste dugu, betiere jorratzen den gaian esku-hartze judizialek sortutako mugak errespetatuz (II.1.1. atala).



Espediente hau irekitzea eragin zuten Ertzaintzaren bi esku-hartzeen ikerketa aipatutako zehaztapenetara egokitu ote zen egiaztatu ahal izateko eskatu genion Herrizaingo Sailari adieraz ziezagula ikerketa noiz hasi zen, zer eduki zuen, haren baitan zer ikerketa-jarduera egin ziren eta zer ondorio lortu ziren. Eskaera hori espediente hau irekiarazi zuten bi polizia-jardueri zegokien, nahiz eta, aurrekarietan aipatu dugunez, hasieran Gasteizko polizia-jardueraren inguruko informaziorik eskaini ez ziguten.

Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zutenean burututako polizia-jardueraren ikerketan parametro horiek errespetatu ote ziren egiaztatu ahal izateko sail horrek eman zizkigun datuak izan dira haren titularrak eta Ertzaintzako buruak apirilaren 12an, gertakariak jazo eta zazpi egun ondoren, Legebiltzarreko agerraldietan adierazitakoak.

Datu horien arabera, sailburuak barne-ikerketa bat has zedin agindu zuen polizia-jarduera gertatu eta hurrengo egunean; erakunde honi oso egokia iruditzen zaio jokaera hori, ikerketaren berehalakotasunaz gomendioan bildu genituen jarraibideen arabera.

Agerraldietan eskainitako informazioak, hala ere, ez dio erantzuten guk eskatutakoari, izan ere, ordura arte ikerketan egindako jardueretako batzuen berri ematera mugatzen da (zehazki, esku hartu zuten hainbat agenteren eta zenbait lekukoren adierazpenak), baina ez du inolako daturik ematen ez edukiaz, ez egin zitezkeen beste ikerketa-jardueraz ere. Orobat, ez du lortutako ondorioen berri ematen; ondorio falta hori esplikatuko luke eskaini zaigun informazio motak (Legebiltzarreko agerraldia gertakariak jazo eta zazpi egun besterik ez zirenean pasa egin zen) eta Ertzaintzako buruak agerraldian adierazitakoak, alegia, une hartan artean ez zegoela azken ondorioak emateko moduan. Gainera, azaldu dugunez, informazio hori ez dago eguneratuta, bada gertakariak jazo eta zazpi egun besterik igaro ez zirenean ikerketa zer egoeratan zegoen azaltzen du, hau da, Herrizaingo Sailak gure lankidetzaskaerari erantzun baino hiru hilabete lehenagokoa da.

Kasu horretan egindako barne-ikerketaz eman diguten informazio eskasa ez dago, gure ustez, justifikatuta, eta, lehen aipatu ditugun arrazoiengatik, ezingo litzateke babestu gai honetan esku-hartze judiziala dagoela esanez Herrizaingo Sailak bere jokaera oinarritzeko egin zuen aipamen orokorrean.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak gero azaldu dizkigun arrazoiak ere ez dute halako erabakia justifikatzen, gure ustez.

Eskatu dugun informazioa ez da *“judizializatutako ikerketei”* buruzkoa, sailburuak behin-behineko gure ondorioei erantzuteko idazkian adierazi duen bezala. Eskatu duguna zera da: informazioa eman diezagutela administrazioaren barne-ikerketaz, horren barruan egin diren ikerketa-jarduera zehatzez eta ateratako ondorioez.





Barne-ikerketan egindako jardueren edukia poliziaren atestatuan islatu bada, sailburuak adierazi duen bezala, ez dugu eragozpen juridikorik ikusten atestatu hori eman diezaguten.

Herrizaingo Sailari beste espediente batzuetan adierazi diogun bezala, atestatuen izaerari buruz dugun irizpidea bat dator zenbait doktrina-ikerketatan adierazitakoarekin. Horren arabera, atestaturik administrazio-izaera duen agiri poliziala da, prozesuaren eta polizia-jardueraren beraren aurrekoa⁴.

Edonola ere, lehenik Herrizaingoko sailburuak eta gero Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioako sailburuak uste bazuten esku-hartze judizialak eragotzi egiten ziela barne-ikerketaz eskatu dugun informazioa ematea –gure irizpidea gorabehera-, egokiena izango zatekeen beren zalantzak dagokion organo judizialari azaltzea, eta, guk dakigula, ez da halakorik egin.

Zehaztu beharra dago ez zaigula inola ere adierazi gai horren gaineko erabaki judizial baten ondorioz barne-ikerketari eta horretaz eskain daitekeen informazioari balizko mugarik jarri zaionik, eta ez da horrelako mugarik aipatu sail baten edo bestearen jokaera justifikatzeko.

Informazio gabekiak kendu egin dizkio erakunde honi bere iritzia osatzeko behar dituen elementuak, Bilboko polizia-jarduerari buruzko barne-ikerketari, alderdikierarik ezari eta edukiari dagokienez. urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean bildutako jarraibideetara egokitu zen ala ez egiaztatu ahal izateko. Hortaz, ezin dugu halako baloraziorik egin.

Informazio faltak eta barne-ikerketari ez jarraitzeko hartu duen erabakiak -aurreko atalean aipatu dugu hori- ulertarazten digute ikerketak kasu horretan ez zituela errespetatu edukiaren egokitzapenari eta inpartzialtasunari buruz aipatutako jarraibideak. Era berean, oraindik halakorik egin ez badute, polizia-jardura horren ikerketari sakona, zehatza eta inpartziala egin dezatela eskatu behar diegu poliziako arduradunei, sail horren esku dauden ikerketari aukera guztiak agortu arte, gomendioan bildutako jarraibideen arabera.

Ondorio hau, gure iritziz, gomendioa bete ote den egiaztatzeko eskatu dugun informazioa ez eman izanaren ondorio logikoa da. Edonola ere, erakunde honen aburuz, garrantzitsuena zera da: polizia-administrazioaren ardura dela guri informazio hori ematea eta bere jarduerak gomendioa bete duela justifikatzea; eta, berriro ere diogu, orain arte ez du halakorik egin, nahiz eta jokabide hori justifikatzeko arrazoirik ez egon, gure ustez.

⁴ CABO MANSILLA, J.M.^a: *El atestado policial*. Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren Prestakuntza eta Hobekuntza Saila. 21. or., honako hauetan aipatua: ALONSO PÉREZ, Francisco: *La policía judicial: Legislación, Comentarios, Jurisprudencia, Formularios*, Ed. Dykinson, 1998, 57. or. GÓMARA HERNÁNDEZ, José Luis eta AGORRETA RUIZ, David: *Prontuario de seguridad pública e intervención policial*, DAPP Publicaciones Jurídicas, 2004, 381. or.



Ez dakigu zein egoeratan zegoen ikerketa Herrizaingo Sailak hura ez jarraitzea erabaki zuenean, ez baitigute horren berririk eman. Nolanahi ere, gomendio hartan azaldu genuena oinarritzat hartuta, gure iritziz, ikerketari berriz ekin beharko litzaioke, baldin eta erabaki hori ikerketa amaitu baino lehen hartu bazen.

3. Puntu honetan interesgarria iruditzen zaigu aipatzea 2000ko abenduaren 4ko 55/89 Ebazpenean Nazio Batuen Batzorde Nagusiak onartu zituen "Tortura eta beste tratu edo zigor anker edo iraingarriak eraginkortasunez ikertzeko eta dokumentatzeko printzipioak". Printzipio horietan berariaz indarraren erabilera aipatzen ez bada ere, horietako batzuk bide-erakusle izan daitezke, gure ustez, oinarritzko eskubideen edozein urraketa larriren ikerketetan.

Gure aburuz, ikuspuntu horretatik honako printzipio hauek nabarmendu beharko genituzke: ikerketak bete behar dituen helburuak (gertakariak argitzea, erantzukizunak zehaztea, horrelakoak errepika ez daitezen beharrezko neurriak ezartzea eta biktimen erabateko ordaina lortzea); ikerketa ustezko erantzuleekiko eta horiek bere baitan hartzen dituen erakundearekiko independentea dela; biktimek ikerketari buruzko informazioa eskuratzeko aukera izan behar dutela; txosten bat egin behar dela, eta bertan azaldu ikerketa noraino iritsi den, ezarritako egintzak, probak ebaluatzeko erabili diren prozedurak eta metodoak, eta ondorioak nahiz gomendioak.

Aipatutako printzipioak honela adierazita daude:

"1. Entre los objetivos de la investigación y documentación eficaces de la tortura y otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes (en lo sucesivo "torturas u otros malos tratos") se encuentran los siguientes:

a) Aclarar los hechos y establecer y reconocer la responsabilidad de las personas o los Estados ante las víctimas y sus familias;

b) Determinar las medidas necesarias para impedir que se repitan estos actos;

c) Facilitar el procesamiento y, cuando convenga, el castigo mediante sanciones disciplinarias de las personas cuya responsabilidad se haya determinado en la investigación, y demostrar la necesidad de que el Estado ofrezca plena reparación, incluida una indemnización financiera justa y adecuada, así como los medios para obtener atención médica y rehabilitación.

2. Los Estados velarán por que se investiguen con prontitud y efectividad las quejas o denuncias de torturas o malos tratos. Incluso cuando no exista denuncia expresa, deberá iniciarse una investigación si existen otros indicios de que puede haberse cometido un acto de tortura o malos tratos. Los investigadores, que serán independientes de los presuntos autores y del organismo al que éstos pertenezcan, serán competentes e imparciales. Tendrán autoridad para encomendar investigaciones a expertos imparciales, médicos o de otro tipo, y podrán acceder a sus resultados. Los métodos utilizados para llevar a cabo estas investigaciones tendrán el máximo nivel profesional y sus conclusiones se harán públicas.

3. a) La autoridad investigadora tendrá poderes para obtener toda la información necesaria





para la investigación y estará obligada a hacerlo. Quienes realicen dicha investigación dispondrán de todos los recursos presupuestarios y técnicos necesarios para hacerlo en forma eficaz, y tendrán también facultades para obligar a los funcionarios presuntamente implicados en torturas o malos tratos a comparecer y prestar testimonio. Lo mismo regirá para los testigos. A tal fin, la autoridad investigadora podrá citar a testigos, incluso a los funcionarios presuntamente implicados, y ordenar la presentación de pruebas.

b) Las presuntas víctimas de torturas o malos tratos, los testigos y quienes realicen la investigación, así como sus familias, serán protegidos de actos o amenazas de violencia o de cualquier otra forma de intimidación que pueda surgir de resultados de la investigación. Los presuntos implicados en torturas o malos tratos serán apartados de todos los puestos que entrañen un control o poder directo o indirecto sobre los reclamantes, los testigos y sus familias, así como sobre quienes practiquen las investigaciones.

4. Las presuntas víctimas de torturas o malos tratos y sus representantes legales serán informados de las audiencias que se celebren, a las que tendrán acceso, así como a toda la información pertinente a la investigación, y tendrán derecho a presentar otras pruebas.

5. a) En los casos en que los procedimientos de investigación establecidos resulten insuficientes debido a la falta de competencia técnica o a una posible falta de imparcialidad o a indicios de existencia de una conducta habitual abusiva, o por otras razones fundadas, los Estados velarán por que las investigaciones se lleven a cabo por conducto de una comisión independiente o por otro procedimiento análogo. Los miembros de esa comisión serán elegidos en función de su acreditada imparcialidad, competencia e independencia personal. En particular, deberán ser independientes de cualquier presunto culpable y de las instituciones u organismos a que pertenezca. La comisión estará facultada para obtener toda la información necesaria para la investigación que llevará a cabo conforme a lo establecido en estos Principios.

b) Se redactará, en un plazo razonable, un informe en el que se expondrán el alcance de la investigación, los procedimientos y métodos utilizados para evaluar las pruebas, así como conclusiones y recomendaciones basadas en los hechos determinados y en la legislación aplicable. El informe se publicará de inmediato. En él se detallarán también los hechos concretos establecidos por la investigación, así como las pruebas en que se basen las conclusiones, y se enumerarán los nombres de los testigos que hayan prestado declaración, a excepción de aquellos cuya identidad no se haga pública para protegerlos. El Estado responderá en un plazo razonable al informe de la investigación y, cuando proceda, indicará las medidas que se adoptarán a consecuencia de ella”.

4. Erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du indarraren erabilera beti azken baliabidetzat jo behar dela, egokitasun, premia eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak hertsiki errespetatu behar direla eta arrazoizko iritzi bat izan behar duela oinarri, kasu bakoitzean hierarkia-nagusiek kontrolatu eta berretsitakoa. Horrez gain, agerian jarri dugu agenteek idatziz jasota utzi behar dutela zergatik erabaki duten indarra erabiltzea eta esku-hartzea zehazki nola burutu den azaldu behar dutela, erabilitako indarraren azalpen xehatua eginez. Halaber, adierazi dugu jarduera behar bezala dokumentatu behar dela, neurria ondoren kontrolatu ahal izan dadin. Eta gaineratu dugu indarraren erabilera poliziaren bulegoetatik kanpo jazotzen denean, agenteek kasuan kasuko kontrolerako zentroari jakinarazi behar dizkiotela jardueraren zergatiak.

Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ere kontu hori joratu dugu (II.2.1. atala), aipatutako jarraibideak bilduz, “San Frantzisko eremuan



atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak” txostenean (1998ko urteko txostena) jada jasotakoak, hain zuzen.

Modu berean, gomendioan indarraren erabilera ikuspuntu materialetik aztertu dugu (IV. atala) eta zera adierazi dugu:

“Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko maiatzaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak ezartzen du polizia funtzionarioek modu honetan jardun behar dutela euren eginkizunak gauzaterakoan: ‘beharrezko erabakitasunez eta berandutu gabe, horren arabera denean kalte larri, berehalako eta konponezin bat saihestea; jarduterakoan, gainera, kongruentzia, egokiera eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan” [5.2.c) art.]

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak printzipio hori berretsi egiten du, kideek, beren eginkizunak gauzatzeko, honela jardun behar dutela xedatzen baitu: ‘beharrezko erabakitasunez, indarraz arrazoizkoa dena baino harago baliatu gabe; gainera, egokitzapen, premia eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan’ (34.1. art.).

Konstituzioko jurisprudentziaren arabera, proportzionaltasunaren printzipioa errespetatzeko, oro har, hartzen den neurriak honako baldintza hauek bete behar ditu: a) lortu nahi den helbururako egokia izatea (egokitasun printzipioa); b) beharrezkoa izatea, hau da, egokitasunari dagokionez berdina den eta xede bera lortzeko horren garestia ez den beste neurririk ez egotea (beharraren printzipioa); eta c) neurri horrekin interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago sortzea estualdian dauden ondasun edo baloreen gainean eragozpenak baino (proportzionaltasunaren printzipioa zentzu hertsian).

Proportzionaltasun printzipioa indarra erabiltzeari aplikatzeko, erabaki hori egokia izan behar da lortu nahi den helburua erdiesteko. Modu berean, horrek esan nahiko du, helburu hori erdieste aldera, ez dagoela horren garestia ez den eta egokia den beste neurririk eta neurri horrek ez duela saihesten dituenak baino kalte larriagorik eragiten.

Halaber, lortu nahi den xederako ahalik eta indar gutxien erabili behar da. Horrek esan nahi du, erabilitako bitartekoa kaltegarria ez dena izan behar dela eta kaltegarria ez den moduan erabili behar dela.

Hori dela eta, kasu bakoitzean bat egiten duten inguruabar zehatz guztiak zehaztasunez ezagutzea funtsezkoa da indarra barne hartu behar izan duen poliziaren jarduera bakoitza baloratu ahal izateko. Horregatik, indarra erabiltzea kontrolatzeko mekanismo zehatzak aztertzerakoan agerian jarri duguna errepikatu dugu, hau da, neurriaren legezkotasunari buruzko epaiketa egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak behar bezala dokumentatu behar direla.

Era berean, azpimarratu behar dugu indarra erabiltzea, istiluak konpontzeko neurri gisa, ahal den guztietan saihesten duten konponbide berriak aztertzea egokia dela. Ikuspuntu horretatik, uste dugu erabilgarria izango litzatekeela polizia-agenteei bitartekotza tekniken eta gatazkak konpontzeko modu alternatiboen arloan prestakuntza jasoko balute, bai eta lan horretan espezializatu diren lan taldeak ezartzea ere. *Hori guztia bitartekotza mekanismoak jarri eta sustatzeko moduan egon daitezkeen, esku-hartze batean gerta daitezkeen tentsio-egoerak desagerrarazteko asmoz”.*

Halaber, gogorazi dugu otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak indar polizialei honako betebeharrak hau ezarri diela: herritarren segurtasuna bermatzeko, 14. eta 16. artikuluetan jaso dituen disuasio-neurriak hartu baino



lehen, eragindako pertsonen abisua emateko betebeharra, betiere, armak edo indarkeriari lotutako beste baliabide batzuk erabiltzen ez badira (17. art.).

Orobat, orain dela gutxiko Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemaren Ordenamenduari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak aipatu ditugun printzipio horiek jaso ditu eta segurtasun publikoaren arloan administrazioaren jarduna arautzen duten printzipio orokor bihurtu ditu. Honela:

“Segurtasun publikoaren arloko administrazio-jarduerak honako printzipio hauek arautuko dituzte:

a) Legezketasun-printzipioa. Eskubideak eta askatasunak murriztea edo baldintzatzea dakarten egintzek lege-mailako arau baten baimena beharko dute. Nolanahi ere, murriztapenik gutxien dakarren neurria hautatuko da, eta arrazoitu egin beharko da interes publikoa babesteko beharrezkoa dela eta gauzatu nahi den helbururako egokia dela azalduz...

(...)

d) Esku-hartze publikoaren proportzionalitate-printzipioa eta bitartekoak iritsi nahi diren helburuen arabera egokitzeko printzipioa” (3.2. art.).

5. Espediente honetan aztertzen ari diren bi esku-hartzeetan Ertzaintzak erabili zuen indarra aipaturiko parametroetara egokitu ote zen zehaztu ahal izateko Herrizaingo Sailak helarazi zigun informazioa, esan bezala, apirilaren 12an Legebiltzarreko agerraldian Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zuteneko polizia-jardueraz azalduetakoa bera da. Lehen adierazi dugunez, hasieran ez ziguten inolako azalpenik eman Gasteizen jazotako polizia-jardueraz -han Xuban Nafarrate larriki zauritu zuten- eta ez ziguten esan zergatik ez ziguten ematen informazio hori.

Aurrekarietan esan dugun bezala, helarazi genituen behin-behineko ondorioen erantzunean, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuak Herrizaingo sailburuaren 2012ko apirilaren 24ko eta maiatzaren 22ko Legebiltzarreko agerraldien edukia eman digu, eta horietatik azkenekoan erakutsi zuen bideoa bidali digu; bideo hori lehen ere kontuan hartu genuen behin-behineko ondorioetan, informazio publikoa baitzen.

Bilbon jazotako polizia-jardueraren gaineko agerraldian, indarraren erabilera justifikatzeko hauxe argudiatu zuten: ahalik eta azkarren sartu behar zutela gertakariak jazo ziren plazarxoan, aurrez gertatu ziren istilu batzuetan zauritutako pertsonak aurkitu ahal izateko -bertsio ofizialaren arabera, haiek poliziaren esku-hartzearen jatorrian zeuden-, istilu haiek neutralizatzeko eta osasun-zerbitzuei zaurituei laguntzen uzteko, baina bertan zeuden zenbait pertsonak, indarkeria baliatuz, ez zieten agenteei pasatzen uzten. Halaber, agenteen segurtasuna bermatzeko beharrak ere eragin omen zuen esku-hartzea. Era berean, gai hauen berri eman zen: istiluen aurka erabili zuten material mota (hasteko, salba tiroak eta, ondoren, gomazko pilotak), agenteek



jasandako erasoei aurre egin zien polizia-dispositiboaren osaera (istiluen aurkako 3 furgoneta eta 28 agente), furgoneta bakoitzean zenbat eskopeta zeramatzaten (3). Halaber, Iñigo Cabacas zegoen eremurantz zuzendu ziren tiroen distantziarik motzena zein izan zitekeen azaldu zen. Esan bezala, adierazi zen distantziarik motzena ez zela 22 metro baino gutxiagokoa izan, baina ez da gehiago zehaztu.

Agerraldian azaldu zenez, une hartan gomazko piloten erabileraz agenteei emandako gomendioak, orokorrak izateaz gain (hau da, istiluak eragozteko edozein materialen erabilerari buruzkoak: ahalik eta zuhurtasunik handiena, kontrolik handiena eta eusterik handiena horiek baliatzean), material hori erabiltzeko berriazko gomendioak ere izan ziren: zer distantziatara egin behar den tiro, eskopetaren ahokoaren kokapenaren arabera (25 metrora posizio leunean, 35 metrora posizio ertainean eta 60 metrora posizio bortitzean), eta tiroa urdailaren azpitik egin behar dela.

Informazio horrek -gaiaz eman diguten informazio guztia da- ez dio behar bezala erantzuten Herrizaingo Sailari bidali genion eskaerari, izan ere, ez da bete jarduera baloratu ahal izateko eskatu genuen zehaztasun eta xehetasun maila: ea erabilitako indarrak bete ote zituen urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jaso genituen parametroak, aipatu dugun moduan. Ez da azaldu zer posiziotan zeuden erabilitako eskopeten ahokoak, zehazki zer distantziatetik egin zen tiro, ezta tiroak urdailaren azpira egin ziren ere. Hori guztia jakitea funtsezkoa da agenteek eman zitzaizkien eta agerraldian aipatu ziren jarraibideak bete ote zituzten argitzeko. Horrez gain, ez da adierazi une hartan Ertzaintzak zer jarraibide zituen indarrean kasu bakoitzean ahokoa jartzeko posizioari buruz, edo horren gaineko jarraibiderik ez ote zegoen. Azken hori ere erabakigarria da balorazioa egin ahal izateko. Ez da justifikatu zergatik ezin izan ziren erabili horren kaltegarriak ez diren eta helburu hori betetzeko, hau da, istiluak zeuden tokira heltzeko egokiak diren beste neurri batzuk, izan ere, horixe zen, informazio ofizialaren arabera, indarra erabiliz lortu nahi zena. Halaber, ez da aipatu ea une hartan aintzat hartu ote zen plazatxoan jende multzo handia zegoela, itxuraz gertatzen ari zenarekin zerikusirik ez zuena eta Ertzaintzari ustez sarrera galarazten zion erasotzaile taldearen berririk ez zuena, eta jendetza hura pozarren eta ospakizun giroan zegoela amaitu berri zen futbol partidaren Bilboko Athletic taldeak irabazi zuelako. Horrez gain, ez da adierazi ea kontuan hartu zen plazatxoaren neurri txikia eta forma, ia guztiz itxia⁵, izan ere, egoera horretan gomazko pilotak erabiltzeak saihestu nahi zen kaltea baino kalte handiagoa eragin zezakeen. Ez da justifikatu erabilitako materiala kalte gutxien egiten zuena zenik eta ahalik eta modu arinenean erabili zenik. Azken finean, ez da erabilitako indarkeriaren deskribapen zehatzik egin.

⁵ Oinezkoentzako kale bat da, hiru aldetatik itxita dagoena inguratzen duten eraikinen ondorioz. Plazaren sarrera Maria Diaz Haroko kalean dago eta bertan zeuden tiroak egin zituzten polizia-agentek. Halaber, kaleak beste sarrera estu bat dauka Maria Diaz Haroko sarreraren parean, Poza Lizentziatuaren kalera ematen duen kalezulo batekin bat egiten duena.



Gainera, ez da adierazi agenteek, istiluen aurkako materiala erabili baino lehenago, abisua eman ote zuten, eta ez da ezer azaldu poliziaren arduradunek indarraren erabileraren gaineko barne-kontrola egiteaz, halakorik egin bazuten, bi alderdi horiek ardura zitzaizkigula adierazi arren. Bestalde, ez dizkigute bidali kontrol hura nola gauzatu zen eta gure jarraibideetara egokitu ote zen egiaztatzeko eskatu genituen agiriak.

Adierazitako gabeziek erakunde hau judizio-elementurik gabe utzi dute eta elementu horiek beharrezkoak dira Ertzaintzak Bilbon burutu zuen esku-hartzean erabili zuen indarra urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jasotako parametroetara egokitu zen ala ez argitzeko. Gomendio horretan indarraren erabilera eta haren barneko kontrola jorratzen dira (II.2.1. eta IV. atalak).

Xuban Nafarrate larri zauritu zeneko jardueraren inguruan Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak bidali digun informazioari buruz ere iritzi bera dugu, helarazi dizkigun Legebiltzarreko agerraldiek eta bideoak ez baitigute gertatutakoa argitzeko judizio-elementu nahikorik ematen.

Gure ustez, Herrizaingo Sailak bidali digun informazio eskasa ez dago justifikatuta eta, beraz, ulertu behar dugu kasu horietan ez zirela aipatutako gomendioan jasotako xedapenak bete. Halaber, polizia-arduradunei indarraren erabilera gomendioan aipatutako ikuspuntutik azter dezaten eskatzera behartzen gaitu.

Azpinarratu behar dugu sailburuak gure behin-behineko ondorioez egindako balorazioetan esandakoa ez dela zuzena, izan ere, guk ez dugu inolaz ere ondorioztatu indarra neurrigabeki edo zuhurtziaz gabe erabili zenik, ezta kasu bietan gertatutako ezbeharrak baliatutako indarraren ondorioz gertatu zirenik ere.

Ondorioztatu duguna da gomendioa ez zela bete, hori pentsatzera eraman baikaitu informaziorik eta justifikaziorik ezak. Nolanahi ere, berriro nabarmendu nahi dugu polizia-administrazioari dagokiola informazio hori ematea, baina oraindik ez duela halakorik egin.

Azkenik, argitu behar dugu indarraren erabilera arautzen duten legeko printzipioekin bat ez datorren erabilera orok ez daukala zertan erabilera bidegabea izan, ikuspuntu penaletik begiraturaz gero. Gure gomendioan, egiaz, legeko printzipio horiek aipatu genituen, baina baita beste errekerimendu batzuk ere, esaterako, indarraren erabileraren barne-kontrolari buruzkoak. Gure ustez, horiek bete diren edo ez aztertzeak ez du inolaz ere esan nahi bide judizial penalean ikertzen ari diren kontuen gaineko iritzirik eman denik. Epaitzeko eremu ezberdinak dira.





6. Herrizaingo Sailak Iñigo Cabacasi heriotza eragin zion esku-hartzean erabilitako indarrari buruz helarazi zizkigun datuek agerian jar lezakete poliziaren jarduerak ez zituela bete errespetatu beharreko jarraibideak pilotak jaurtitzeko distantzietan dagokienez, ezta ahokoak posizio leunean egon balira ere.

Ohar hori, edonola ere, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak bidal diezazkigukeen argibideen zain gauden bitartean egin dugu. Argibide horiek zehaztu ahal izango dute gomazko pilotak zehazki zer distantzietatik jaurti ziren eta zer ahoko erabili ziren. Dena den, oraindik ez dugu informazio hori jaso.

7. Lehen ere adierazi dugunez, Herrizaingo Sailak hasieran ez zigun inolako informaziorik eman Gasteizen burututako poliziaren jardueraz –han larriki zauritu zuten Xuban Nafarrate gaztea- eta ez zigun jokaera horren gaineko azalpenik eman.

Informaziorik ezaren ondorioz, ulertu behar izan genuen kasu horretan ez zirela bete urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean bildu genituen jarraibideak ikerketa azkarra, inpartziala eta egokia izan dadin (II.1.1. atala) eta indarraren erabiltzean berori arautzen duten printzipioak eta eskakizunak bete daitezela, erabilera hori behar bezala dokumentatu dadin eta horren barne-kontrola egin dadin (II.2.1. eta IV atalak).

Modu berean, hori guztia dela-eta, honakoa eskatu behar izan genion Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Sailari: oraindik egin ez bazuen, gertakarien ikerketa zehatza, sakona eta inpartziala has zezala, gomendio orokor horretan jasotako jarraibideak betetz; ikerketa horretan eskura zituen ikertzeko aukera guztiak agor zitzala, frogak objektibotasun osoz balora zitzala eta gaztearen senideek poliziaren jardueraren zuzentasunaz agertu zituzten zalantza guztiak argitu zitzala.

Gogorarazi genion ikerketa ezin zela eragindako polizia-agenteen beren bertsioa jasotzera mugatu, beste ikerketa-jarduera batzuk egiterik ez zegoela justifikatu ezean, eta bertsio hori ezin zela, besterik gabe, ontzat eman.

Informazio nahikorik ez genuenez gero, kasu horretan erabili zen indarra gomendioan aipaturiko ikuspegitik azter zezan eskatu behar izan genion aipaturiko sailari.

Lehen ere aipatu dugun legez, sailburuak gai horretaz bidali digun informazioak ez digu eman behin-behineko ondorioetan kontuan hartu ez genuen elementurik; beraz, arestian aipaturiko balorazioa errepikatu behar dugu ezinbestean.

8. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean aditzera eman dugu poliziaren arduradunek atestatuaren edukia kontrolatu behar dutela, atestatu horiek



izapidetzea eragin duten gertakarien kontaktari dagokionez (II.2.3. atala). Horren inguruan, zera adierazi dugu:

“Azken urteotan zenbait pertsonak jo dute erakunde honetara euren aurka egindako argiketen edukiarekin ados ez daudela adierazteko, haien ustez poliziek ez zutelako zintzotasunez islatu gertatutakoa, euren jarduera eragin zuten gertakariei dagokienez. Halaber, kexa batzuek arazo bera agertu dute poliziek arau-hauste administratiboengatik egindako salaketei buruz. Erreklamaziogileek horrela lotzen zituzten jokabidea eta poliziek ondoren balizko polizia jarduketa desegokia zurrizteko egindako ahalegina edo erakunde honek “kontrasalaketa” deritzona; funtsean, honakoan datza: poliziak, euren esku-hartzeak hura zalantzan jarri duen pertsonak kexa edo salaketa jartzea ekar dezakeela sumatzen dutenean, aurreratu eta haren aurkako salaketa egiten dute.

Oso kezkarria deritzogu halako portaera arbuigarriak gertatzeari. Badakigu ez dela erraza haiei aurka egitea, baina gertatzen direnean polizia eginkizunen gehiegikeria da eta eginkizun horiek betetzeko legezketasun itxuraren pean mozorrotu ohi dira. Jakin badakigu, arazoak sortzen direla arlo horretan gehiegikeria bat egin dela frogatzeko, hain zuzen ere, jardueraren legezketasun itxura horregatik. Horregatik jotzen dugu funtsezkotzat polizia arduradunak jakitun izatea ordenamendu juridikoak poliziei argiketa edo administrazio salaketa egiteko ematen dien ahalmena neurritz gain erabil daitekeela eta praktika horiek saihestu eta, gertatuz gero, antzeman ahal izateko kontrol tresnak ezartzea.

Horri buruz jaso dugun informazioa dela-eta, ulertzen dugu arlo horretan ez dela kontrol tresnarik ezarri eta berriz esan behar dugu egiten behar dela”.

Gure ustez, horrelako gaitzespen bat zegoen Xuban Nafarrateren aitak maiatzaren 9an Eusko Legebiltzarraren Erakunde, Herrizaingo eta Justizia Batzordearen aurrean egin zuen agerraldiaren azpian. Gaitzespen horrek polizia-agenteen bertsioaren eta polizia-jardueraren grabaketa bideografiko baten artean dauden desadostasunak ditu oinarri.

Hori dela eta, espediente hau eragin duten bi jarduerengatik izapidetutako atestatueta parte hartu zuten agenteek egindako deklarazioak gomendioan adierazitako ikuspegitik azter zitzala eskatu genion Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailari.

Aurrekarietan adierazi dugun legez, aipatutako sailak ez digu gai horren inguruko inolako informaziorik eman.

9. Polizia-jarduera batek eragindako pertsonen buruz polizia-arduradunek ematen duten informazioak, beharrik gabe, haien irudia kaltetu dezake. Horrek kezkatu egiten gaitu.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailari helarazi genizkion behin-behineko ondorioetan azpimarratu genuen alderdi hori, izan ere, Xuban Nafarrateren aitak Legebiltzarrean egin zuen agerraldiaren azpian ere agertzen zen. Beraz, horrelako egoerak saihesteko beharrezko neurriak har zitezela eskatu genuen.

Sailburuak igorri zigun erantzun-idazkian, ordea, ez da kontu horren gaineko adierazpenik egiten.





10. Ez dakigu gertakariak jazo ziren unean gomazko piloten erabileraz agenteei eman zizkieten jarraibideak apirilaren 12an Legebiltzarreko agerraldian aipatutakoak berak ote ziren. Hala balitz, erakunde honen iritziz, jarraibide horiek mugatuegiak dira, kontuan hartu behar baita material horrek heriotza eragin dezakeela eta pertsonen osotasun fisikoa erremediorik gabe kaltetu dezakeela.

Balorazio hori helarazi genion sailburu berriari, baina horrek ere ez du gai hori jorratu bere erantzunean.

11. Giza eskubideekin eta segurtasunarekin zerikusia duten nazioarteko eta Europako zenbait erakundek beren iritzia agertu dute polizia kidegoek indarra erabiltzeaz, eta horren gainean gomendio zehatzak egin dituzte. Gomendioen ardatz komuna bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidea babestea da.

Ez dugu orain arte egin diren iritzi eta deklarazio guztien azalpen zehatza egiteko asmorik, baina nabarmendu egin nahi ditugu garrantzitsutzat jotzen ditugunak -espediente honetan sortu diren gaiekin lotura dutelako- eta haien oinarrian dauden printzipioak.

Arlo horretan, ereduzko agirietako bat honako hau da: "Principios Básicos sobre el Empleo de la Fuerza y de Armas de Fuego por los Funcionarios Encargados de Hacer Cumplir la Ley". Nazio Batuek 1990ean onartu zuten⁶.

Agiriaren abiapuntua hau da: *"los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley desempeñan un papel fundamental en la protección del derecho a la vida, la libertad y la seguridad de las personas, tal como se garantiza en la Declaración Universal de Derechos Humanos y se reafirma en el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos"*. Indarraren erabileraz zera azpimarratzen du: *"debe conciliarse con el debido respeto de los derechos humanos"*. Eta gogora ekartzen du zer dagoen xedatuta 1979. urtean Batzorde Nagusiak onartutako "Código de Conducta para Funcionarios Encargados de Hacer Cumplir la Ley" izenekoan⁷, 3. artikuluan: funtzionario horiek *"podrán usar la fuerza cuando sea estrictamente necesario y en la medida que lo requiera el desempeño de sus tareas"*.

Besteak beste, hauek dira bertan biltzen diren printzipioak:

"1.Los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley adoptarán y aplicarán normas y reglamentaciones sobre el empleo de la fuerza y armas de fuego contra personas por parte de funcionarios encargados de hacer cumplir la ley. Al establecer esas normas y disposiciones, los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley

⁶ "Principios Básicos sobre el Empleo de la Fuerza y de Armas de Fuego por los Funcionarios Encargados de Hacer Cumplir la Ley" izenekoak Nazio Batuen zortzigarren batzarrean onartu ziren. Batzar hori Habanan (Kuba) egin zen, 1990eko abuztuaren 27tik irailaren 7ra bitartean, eta Delitua Prebenitzea eta Gaizkilea Tratatzea gaia jorratu zuen.



examinarán continuamente las cuestiones éticas relacionadas con el empleo de la fuerza y de armas de fuego.

2. Los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley establecerán una serie de métodos lo más amplia posible y dotarán a los funcionarios correspondientes de distintos tipos de armas y municiones de modo que puedan hacer un uso diferenciado de la fuerza y de las armas de fuego. Entre estas armas deberían figurar armas incapacitantes no letales para emplearlas cuando fuera apropiado, con miras a restringir cada vez más el empleo de medios que puedan ocasionar lesiones o muertes. Con el mismo objetivo, también debería permitirse que los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley cuenten con equipo autoprotector, por ejemplo, escudos, cascos, chalecos a prueba de balas y medios de transporte a prueba de balas a fin de disminuir la necesidad de armas de cualquier tipo.

3. Se hará una cuidadosa evaluación de la fabricación y distribución de armas no letales incapacitantes a fin de reducir al mínimo el riesgo de causar lesiones a personas ajenas a los hechos y se controlará con todo cuidado el uso de tales armas.

4. Los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley, en el desempeño de sus funciones, utilizarán en la medida de lo posible medios no violentos antes de recurrir al empleo de la fuerza y de armas de fuego. Podrán utilizar la fuerza y armas de fuego solamente cuando otros medios resulten ineficaces o no garanticen de ninguna manera el logro del resultado previsto.

(...)

18. Los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley procurarán que todos los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley sean seleccionados mediante procedimientos adecuados, posean aptitudes éticas, psicológicas y físicas apropiadas para el ejercicio eficaz de sus funciones y reciban capacitación profesional continua y completa. Tales aptitudes para el ejercicio de esas funciones serán objeto de examen periódico.

19. Los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley procurarán que todos los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley reciban capacitación en el empleo de la fuerza y sean examinados de conformidad con normas de evaluación adecuadas. Los funcionarios que deban portar armas de fuego deben estar autorizados para hacerlo sólo tras haber finalizado la capacitación especializada en su empleo.

20. En la capacitación de los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley, los gobiernos y los organismos correspondientes prestarán especial atención a las cuestiones de ética policial y derechos humanos, especialmente en el proceso de indagación, a los medios que puedan sustituir el empleo de la fuerza y de armas de fuego, por ejemplo, la solución pacífica de los conflictos, el estudio del comportamiento de las multitudes y las técnicas de persuasión, negociación y mediación, así como a los medios técnicos, con miras a limitar el empleo de la fuerza y armas de fuego. Los organismos encargados de hacer cumplir la ley deben examinar sus programas de capacitación y procedimientos operativos a la luz de casos concretos.

21. Los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley proporcionarán orientación a los funcionarios que intervengan en situaciones en las que se empleen la fuerza o armas de fuego para sobrellevar las tensiones propias de esas situaciones.

22. Los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley establecerán procedimientos eficaces para la presentación de informes y recursos en relación con todos





los casos mencionados en los principios 6 y 11 f)⁷. Para los casos con respecto a los cuales se informe de conformidad con esos principios, los gobiernos y los organismos encargados de hacer cumplir la ley asegurarán que se establezca un procedimiento de revisión eficaz y que autoridades administrativas o judiciales independientes estén dotadas de competencia en circunstancias apropiadas. En caso de muerte y lesiones graves u otras consecuencias de importancia, se enviará rápidamente un informe detallado a las autoridades competentes para la revisión administrativa y la supervisión judicial”.

Halaber, agiriak su-armen erabilerari lotutako printzipioak ere jaso ditu, horien artean, erabili aurretik abisua emateko beharra. Printzipio horrek honela dio:

“10. En las circunstancias previstas en el principio 9⁸, los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley se identificarán como tales y darán una clara advertencia de su intención de emplear armas de fuego, con tiempo suficiente para que se tome en cuenta, salvo que al dar esa advertencia se pusiera indebidamente en peligro a los funcionarios encargados de hacer cumplir la ley, se creara un riesgo de muerte o daños graves a otras personas, o resultara evidentemente inadecuada o inútil dadas las circunstancias del caso”.

Orobat, aipatutako printzipioak “Normativa y Práctica de los Derechos Humanos para la policía” izenekoan jaso dira⁹. Araudi hori 2003. urtean egin zuen Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak.

Europako Kontseiluak ere eman du indarraren erabileraren gaineko iritzia.

Zehazki, hauxe ezarri du erakunde horren Parlamentu Biltzarraren 690 Ebazpenak (1979), “Declaración sobre la policía” gaiari buruzkoak: *“el funcionario de policía debe actuar con toda la determinación necesaria, sin jamás recurrir a la fuerza más que lo razonable para cumplir la misión exigida o autorizada por la ley”*. Eta adierazten du honako hau beharrezkoa dela: *“dar a los funcionarios policiales instrucciones claras y precisas sobre la manera y las circunstancias en las cuales deben hacer uso de sus armas”*.

Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako 10. Gomendioak (2001), “Código Europeo de Ética de la Policía” izenekoari buruzkoak, bere aldetik, zera adierazten du: eskubideak nagusi diren gizarte demokratiko batean, poliziaren helburu nagusietako bat da *“proteger y respetar las libertades y derechos fundamentales del individuo tal como son consagrados, principalmente, en el Convenio Europeo de Derechos Humanos”* (I. atala). Poliziaren jardueraren printzipio zuzentzaitzat jotzen ditu bizitzeko eskubidea errespetatzea, eta indarra kasu honetan bakarrik erabiltzea: *“en caso de necesidad y únicamente para conseguir un objetivo legítimo”* (V.A, 35. eta 37. atalak). Modu berean, prestakuntzaren garrantzia nabarmentzen du, batez ere, alor horretako prestakuntza zehatzaren inguruan. Horri dagokionez, zera proposatu du: *“Una formación práctica relativa al empleo de la fuerza y sus límites con respecto a los principios establecidos en materia de derechos*

⁷ 6 eta 11 f) printzipioetan jorratzen dira indarraren erabilerak lesioak edo heriotza eragiten dituzten kasuak.

⁸ 9. atala su-armen erabilerari buruzkoa da.

⁹ “Manual ampliado de derechos humanos para la policía”.



humanos, principalmente del Convenio Europeo de Derechos Humanos y de la jurisprudencia correspondiente, debe integrarse en la formación de los policías a todos los niveles". Eta gaineratu du: *"formación general inicial debe ir seguida de periodos regulares de formación continua y de formación especializada"* (IV. C, 28. eta 29. atalak).

Oraindik orain, Veneziako Batzordeak¹⁰ 581/2010 Ikerketan bildu ditu, "La libertad de reunión pacífica" gaiari buruzkoan, printzipio horietako batzuk. Ikerketan aipatzen dira, zehatz-mehatz, proportzionaltasunaren printzipioa indarraren erabilerari dagokionez (174. atala), oro har indarraren erabilera arautzeko beharra, eta, zehazki, kautxuzko jaurtigaien eta istiluen aurkako beste material batzuen erabilera (171. atala). Indarra modu desberdintzailean eta proportzionalan erabiltzeko aukera ematen duten erantzuteko baliabide desberdinak garatu behar direla azpimarratu da; horien artean, hilgarriak ez diren arma ezgaitzaileak proposatu dira (172. atala). Polizia-agenteen prestakuntza garrantzitsua dela nabarmendu da (178. atala). Erabilitako indarra xehetasun osoz dokumentatu behar dela ere azpimarratu da, baita ere berriz aztertu behar dela indarra erabili den polizi jarduera bakoitza, eta ikerketa independentea egin behar dela erabilitako indarrak lesioak edo heriotza eragiten baditu (176. atala).

Tortura eta Tratu Anker edo Iraingarriak Prebenitzeko Europako Batzordeak, halaber, deskarga elektrikoak ematen dituzten armak aztertzerakoan, aipatutako printzipio gehienak jaso ditu¹¹.

Beste eremu material eta lurralde-eremu batean, Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundeak¹² 2008. urtean "Guía de la Policía Democrática"¹³ izeneko gida onetsi zuen, poliziaren jarduera egokien erreferentzia eta arlo horretako nazioarteko estandarren erreferentzia izan zedin. Gidan azpimarratu da poliziaren lehentasunik gorena bizitzarekiko errespetuak eta babesak izan behar duela, eta eskubide horren eta indarraren erabileraren artean dagoen harremana nabarmendu du. Modu berean, bere baitan biltzen ditu proportzionaltasunaren printzipioak, su-armak erabili baino lehen egin beharreko abisua, prestakuntza -bai istiluen aurkako materialari buruzkoa, bai indarraz bestelako mekanismo alternatiboak erabiltzeari buruzkoa (konbentzitzeko, negoziatzeko eta bitartekotza ezartzeko mekanismoak barne direla)-. Gainera, indarra erabiltzen denean, ikerketa egin behar dela adierazten da, beharrezko parametroak bete ote diren egiaztatzeko (67. atala eta hurrengoak).

¹⁰ Veneziako Batzordea Europako Kontseiluaren kontsultarako organoa da, Konstituzioarekin zerikusia duten gaietan.

¹¹ CPT/Inf/E (2002) 1-Rev 2010- izeneko txostenak (VIII. atala) aipatutako printzipioak bildu ditu.

¹² Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundea eskualdeko segurtasunerako erakundea da. Europako, Erdialdeko Asiako eta Ipar Amerikako 56 estatuk osatzen dute, Espainia ere tartean dela.

¹³ "Guidebook on Democratic Policing".



Amnistia Internacional erakundeak ia printzipio horiek guztiak bereganatu ditu honako agiri honetan: "Diez normas básicas de derechos humanos para funcionarios encargados de hacer cumplir la ley"¹⁴. Giza eskubideak defendatzen dituen gobernu kanpoko erakunde horrek eskatu du ikertzeko mekanismo independenteak ezar daitezela hiltzeko gaitasuna duen armak erabiltzen diren polizi jarduera guztiak ikertzeko, baita indarra erabiltzeko heriotza edo lesio larriak eragiten baditu ere. Horrez gain, mekanismo horiek egokia den informazio guztia aginpide judizialei bidal diezaietela eskatu du¹⁵.

Aipatutako organismoen eta erakundeen gomendioak -Ararteko erakundeak egindako batzuekin bat datoz-, funtsean ondorengo jarduera-ildoen inguruan egituratzen dira: 1) poliziaren jardueraren lehentasunik gorena bizitzarekiko errespetua eta babesa dela ezartzea; 2) indarra erabili beharrean, bortitzak ez diren metodoen erabilera sustatzea eta metodo horiek polizien prestakuntzaren barruan sartzea; 3) indarraren eta istiluen aurkako materialaren erabilera arautzea eta polizia-agenteei horien erabileraren inguruko jarraibide argiak eta zehatzak ematea; 4) indarraren erabilera proportzionaltasunaren printzipioaren menpe jartzea; 5) indarraren erabilera desberdindua ahalbidetzea; 6) lesioak edo heriotza eragin ditzakeen istiluen aurkako materialaren erabilera mugatzea; 7) hilgarriak ez diren baina ezgaitzen duten armen fabrikazioaren eta banaketaren ebaluazio arduratsua egitea eta horien erabilera kontrolatzea; 8) indarraren erabileraren inguruko prestakuntza egokia eskaintzea, etengabeko eta aldi behingo prestakuntza-programak ezartzea alor horretan, eta une oro material horiek erabiltzeko gaitasunak berraztertzea; 9) su-armak erabili baino lehen, abisua ematea; 10) erabilitako indarra xehetasun osoz dokumentatzea eta indarra erabiltzen den kasu bakoitza berraztertzea; 11) indarraren erabilerak lesioak edo heriotza eragiten dituen bakoitzean, ikerketa independentea egitea; horrez gain, arma hilgarriak erabiliz gero, kasu horietan ere ikerketa mekanismo independente batek egitea.

12. Iñigo Cabacasen heriotza bezalako heriotza bidegaberik eta mingarririk berriro gerta ez dadin Herrizaingoko sailburuak Legebiltzarreko agerraldian iragarri zituen neurriak aurrekarien 8.4. atalean transkribatuta daude, aurkeztu ziren moduan hain zuzen ere. Laburbilduz, hauek dira: 1) apirilaren 6an, hau da, poliziaren jardueraren hurrengo egunean, abian jarritako barne-ikerketa bide judizialean egiten jarraitzea, instrukzioaren ardura duen epailearen zuzendaritzapean, une honetan Herrizaingo Sailak duen informazio guztia hari jakinaraziz eta agente talde bat haren esku jarritz; 2) zuzenean esku hartu zuten agente bakoitzari barneko espediente bat irekitzea, euren jardueran bete behar zituzten jarraibideak bete ote zituen zehazteko eta, hala badagokio, dagozkion erantzukizunak argitzeko; 3) lantalde bat sortzea, jarduteko jarraibideak egokitze eta instrukzio batean jasotzeko; 4) talde auditore bat sortzea, lesioak eragiten dituen poliziaren jarduera orotarako; 5) berehala instrukzio bat

¹⁴ 1998ko abendua, Índice AI: POL 30/04/98/s

¹⁵ [http://www.es.amnesty.org/noticias/noticias/articulo/amnistia-internacional-pide-al Estado-que-se-revise-la-utilizacion-de-las-pelotas-de-goma-por-toda/](http://www.es.amnesty.org/noticias/noticias/articulo/amnistia-internacional-pide-al-Estado-que-se-revise-la-utilizacion-de-las-pelotas-de-goma-por-toda/)



egitea, istiluen aurkako materialaren eta horren erabileraren gaineko kontrola sendotzeko; 6) 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Herritarren Segurtasunerako unitateetan eskopeta pilota-jaurtitzailen erabilera debekatzea eta material horren erabilera mugatzeko neurriak ezartzea egun hori iritsi arte eta debekuak barne hartzen ez dituen unitate berezietan (Talde Mugikorra eta Herritarren Segurtasuna Sendotzeko Taldea); 7) horren kaltegarriak ez diren istiluen aurkako bitartekoez hornitzea; 8) ekainaren 1etik aurrera, poliziaren uniformean identifikazio profesionalaren zenbakia erakustea; eta 9) Ertzaintzan sartzeko hautaketa prozesuetan prestakuntzari emandako bultzada.

Herrizaingo Sailak, beste espediente batean jakinarazi zigun zer-nolako neurriak hartu zituen indarraren erabilera modulatzeko, ahal den guztietan indarraren erabilera saihesteko eta, horren ordez, bitartekotza teknikak baliatzeko eta istiluak beste modu batean konpontzeko -urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean aipatu genituen neurri horiek (IV. atala)-. Zehazki, azaldu zigun Ertzaintzan bitartekotza-tekniken arloan prestakuntza jaso duten langileak daudela eta *“que se ha puesto en marcha la ‘Comisión Operativa de la Ertzaintza’ que se encargará de analizar las medidas interpuestas por los mandos de la Ertzaintza dirigidas a modular el uso de la fuerza en este tipo de situaciones y que se encargará así mismo de analizar las posibles responsabilidades penales, la investigación y en su caso corrección de las actuaciones policiales y la asistencia a las víctimas en actuaciones con desórdenes graves, así como la gestión de las compensaciones patrimoniales que se puedan derivar”*.

Batzorde horrek zer eginkizun dituen ikusita, badirudi horixe dela sailburuak iragarritako neurrien artean aipatu zuen talde auditorea.

Herrizaingo Sailak hasieran ez zigun taldearen osaeraren gaineko informaziorik eman. Behin-behineko ondorioetan kontuan hartu genuen informazioa bat dator Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak helarazi digunarekin, zenbait komunikabidek alde aurretik zabaldu baitzuten. Komunikabide horiek aditzera eman zutenez¹⁸, Ertzaintzaren barruko batzorde bat da, Ertzaintzaren Zuzendaritza Operatiboko arduradunek eta Ikuskaritza eta Administrazio Dibisioaren Buruzagitzako arduradunek osatutakoa. Halaber, kasu bakoitzean sortutako beharren arabera, aztertzen diren jardueretan esku hartutako dibisioen eta unitateen buruzagitzako arduradunek ere parte har lezakete, baita Ikuskaritza eta Administrazio Dibisioaren Administrazio Unitateak edo aztertutako gaietan adituak diren poliziek ere.

Barne-ikerketa bertan behera uzteko erabakiaz adierazi ditugun eragozpenak eta jarraian proposamen batzuen gainean egingo ditugun oharrak alde batera utzita, oro har, iragarritako neurriak ontzat jotzen ditugu.

Hala ere, nahigabetu egin gaitu guri ez jakinaraztea neurri horiek nola zehaztu ziren, ezta ere zer jarduera egin ziren neurriak iragarri zirenetik Herrizaingo



Sailak espediente honetan egin genion laguntza-eskaerari erantzun arte igaro ziren ia hiru hilabeteetan.

Uste dugu Herrizaingo Sailaren erabakia arrazoitzeko sailburuak eman zituen arrazoiek ezin dutela jokaera hori justifikatu. Neurriak betetze aldera hilabete horietan egin ziren jarduera zehatzen berri eman ez izanak kezkatzen gintuen gu, ez sailak jarduera horietaz egindako balorazioaren berri eman ez izanak.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak gai horretaz eman digun informazioa, bistan denez, istiluen aurkako materialaren erabilerari eta kontrolari buruz emandako bi jarraibideen edukiaren laburpen oso orokorra baino ez da izan.

Azalpen berri horiek, gure ustez, ez dira inola ere nahikoak garatutako jarduera zehatzak ezarri diren xehetasun-mailarekin ezagutu ahal izan ditzagun.

Horrenbestez, uste dugu behin-behineko ondorioetan adierazi genituen eragozpenek beren horretan dirautela.

Informaziorik ez edukitzeak nabarmenki zailtzen du erakunde honen lana. Gainera, egin dezakegun balorazioa baldintzatzen du, izan ere, eman dizkiguten datu eskasak erabiliz egin behar dugu, ezinbestean. Mugaketa garrantzitsu hori abiapuntutzat hartuta, honela baloratu ditugu iragarritako neurriak:

a) Berrito diogu, gure ustez, ez dago justifikatuta Iñigo Cabacasen heriotza eragin zuen poliziaren jarduerari buruzko barne-ikerketa bertan behera uzteko Herrizaingo Sailaren erabakia, betiere, helarazi diguten informazioari jarraiki. Gure iritziz, erabaki hori ez da egokia neurri horiek harrarazi dituztenak bezalako gertakari larriak berriz gertatzea saihesteko. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean aditzera eman genuenez, barne-ikerketak, gure ustez, egon daitezkeen jarduera desegokiak prebenitzeko eginkizun garrantzitsua betetzen du (II. atala). Horrez gain, funtsezkoa da jazotako gertakariak argitzeko.

b) Urteetan zehar, gomazko pilotek kalte pertsonal larriak eta konponezinak eragin dituzte¹⁶ eta heriotza ere eragin izan dute, Iñigo Cabacasen kasuan gertatu den moduan. Zorigaitzoko gertakari horrekin bat eginez, zenbait ahotsek material horren arriskuaz eta hiltzeko gaitasunaz ohartarazi dute. Adierazi denez, jaurtigailuek ez daukate punteriarekin lotutako elementurik eta horrek zehaztasunean eragiten du. Horrela, itxura denez, jaurtigaiak

¹⁶ 2012ko uztailaren 18ko Legebiltzarraren erantzunean, gomazko piloten erabileraren ondorioz Herrizaingo Sailak ordaindutako kalte-ordainak hizpide dituen horretan, sail horrek 25 kasu baino gehiago aipatu ditu 2000 eta 2012. urteen tartean. Kasu horietan, material hori erabiltzeak lesioak eragin ditu.



eskopetatik ateratzen direnean, ausazko ondorioa dute eta pilotak norabiderik gabeko ibilbidea izaten du¹⁷.

Erakunde honek ez dauka gaitasun teknikorik material horren edo istiluen aurkako beste edozein materialen gainean horrelako baloraziorik egin ahal izateko. Gainera, gure iritzian, ez dagokigu guri balorazio hori egitea. Hori bai, ikusirik aipatutako informazioa, Bilboko polizia-jarduerak izan zuen zorigaitzoko amaiera eta Gasteizko polizia-jardueran larriki zauritu zuten gaztearen senideek egindako salaketa, guri dagokigu agerian jartzea lehenbailehen azterketa sakon bat egin behar dela Ertzaintzak erabiltzen duen istiluen aurkako materialaz eta polizi jardueraren protokoloez. Horretarako, erreferentziatzat hartu behar dira gure inguruko sistema polizial bermatzaileenak eta lehen aipatu ditugun erakundeek adierazi dituzten jarraibideak, polizia kidego horrek bere eginkizunak behar bezala burutu ahal izan ditzan, inoren bizitza eta osotasun fisikoa (ezta agenteena ere) arriskuan jarri gabe.

Hori dela eta, egokitzen jotzen ditugu gomazko pilotak desagerrarazteko asmoz Herrizaingo Sailak iragarri dituen neurriak. Hala ere, erabaki horren oinarrian ustez egon diren arriskugarritasun arrazoiak aintzat hartuta, piloten erabilera debekatu beharko litzateke debeku horrek eraginik ez duen unitateetan ere (Talde Mugikorra eta Herritarren Segurtasuna Sendotzeko Unitatea) eta, haien ordez, unitate horietan, istiluen aurkako beste material bat baliatu beharko litzateke, hain arriskutsua ez dena.

Ikuspuntu horretatik, egokia iruditzen zaigu lantalde bat eratzea. Dena den, gure ustez, talde horren zereginaren barruan sartu beharko litzateke proposatu dugun ikerketa. Gure iritziz, ikerketa horretan, istiluen aurkako materialaren kontrola ere jorratu beharko litzateke, bakoitzari emandako horniduraren kontrol pertsonala barne dela. Horrela, agente bakoitzak erabili duen materiala identifikatu ahal izango da, eta erabilera desegokiaren ondoriozko erantzukizuna nori dagokion argitu..

Bilboko poliziaren jardueraz helarazi diguten informazioan adierazi da gertakarietan zuzenean esku hartu zuten polizia-agenteak ez zirela Sendotzeko Taldearen Unitatekoak, baina ez da zehaztu zein unitatekoak ziren. Bestalde, Ertzaintzako buruak, apirilaren 12ko Legebiltzarreko agerraldian, bereizi egin zituen, alde batetik, han zeuden herritarren segurtasunerako patruilak, eta, bestetik, zuzenean esku hartu zuten istiluen aurkako furgonetak. Bereizketa horrek ulertaraz lezake azken dotazio hori osatzen zuten agenteak ez zirela Herritarren Segurtasunerako Unitateko kideak. Gure ustez, garrantzitsua da orain arte argitu ez den alderdi hori argitzea, hartutako neurriarekin zuzeneko lotura baitauka.

¹⁷ Ertzaintzako buruak, apirilaren 12ko Legebiltzarreko agerraldian, zera adierazi zuen gai horretaz: "...una de las razones por las que se quiere cambiar este tipo de material es porque, precisamente, no tiene elementos de puntería y por su, digamos, trayectoria no tensa, errática, y cambiarla por otros medios que tienen otras limitaciones también, pero que permiten ser más selectivo en cuanto a hacer puntería".



c) Erakunde honek eta arestian aipatu ditugun organismoek egindako gomendioekin bat dator zuzenean esku hartu zuten agenteei barneko espediente bat irekitzea, euren jardueran bete beharreko parametroak bete ote zituen egiaztatzeko eta, hala badagokio, erantzukizunak argitzeko. Orobat, koherentea da, gure ustez, uztailaren 17ko 4/1992 Legeak - Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzkoak- eta Ertzaintzaren Diziiplina Araudiak -maiatzaren 3ko 170/1994 Dekretuaren bidez onartutakoak- diziplinaren arloan ezarri zituzten xedapenekin.

d) Era berean, on deritzogu lesioak eragin dituzten polizi jarduera guztiak ikuskatzeko talde auditorea sortzeari. Hala ere, baldin eta, dirudien bezala, batzorde horren eginkizunak zabaldu eta ikerketa ere barne hartzen badute, komenigarria litzateke, guk uste, lehen aipatu ditugun organismoek egindako gomendioak aztertzea, ikerketa hori erakunde independente batek ere egin dezan, bizitzeko edo osotasun fisikorako eskubidea arriskuan jartzen denean edo oinarrizko eskubideak larriki urratzen direnean, baita arma hilgarriak erabiltzen direnean ere. Halaber, egiten den azterketa horretan, kontuan hartu beharko lirateke, gure aburuz, gure inguruko herrialdeek arlo horretan ezarri dituzten jarduera egokiak.

e) Prestakuntza, gure iritziz, egon daitezkeen jarduera desegokiak prebenitzeko lehen mailako tresna da. Halaxe azpimarratu genuen urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (VII. atala) eta halaxe aitortu dute eskubideak bermatzen dituzten beste erakunde batzuek ere. Esan bezala, erakunde horiek prestakuntzaren garrantzia gailendu dute aztergai dugun indarraren erabileraren alor zehatzean. Horregatik, gure ustez, material mota hori erabiltzen dutenei prestakuntza etengabea eta derrigorrezkoa eman beharko litzateke indarra eta istiluen aurkako materiala erabiltzearen arloan, eta prestakuntza horrek ez luke mugatu behar Ertzaintzan sartzeko hautaketa-prozesura -sailburuak iragarri zuen bezala- edota aldizka egiten diren birziklatze ikastaroetara, are gutxiago istiluen aurka erabilitako materialak hiltzeko gaitasun handia baldin badu.

f) Gogorarazi behar dugu indarraren eta istiluen aurkako materialez ematen diren jarraibideek zehatzak eta xeheak izan behar dutela, aipatutako erakundeek gomendatu duten bezala, eta indarraren erabileraz ere araudi orokorra egin beharko litzatekeela.

g) Ararteko erakundeak eskatu du polizia-funtzionarioek identifikatzen dituen zenbakia edo erreferentzia erakuts dezatela uniformean erraz ikusten den leku batean. Neurri hori lagungarria da, gure ustez, jarduera jakin bat arduradunak identifikatzea ezinezkoa izan delako zigorrik gabe gera ez dadin bermatzeko. Horrez gain, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazi ditugun beste helburu batzuk ere betetzen ditu; izan ere, gomendio horretan gai horretaz dugun iritzia azaldu dugu (V. atala). Horregatik, poztu egin gaitu Herrizaingo Saila gomendioa betetzearen alde agertu izanak.



Haatik, zera adierazi behar dugu: neurri hori ekainaren 1etik aurrera hartuko zuela jakinarazi zigun sail horrek espediente honetan, baina lehen aipatutako espedienteaz jaso dugun informazioaren arabera, alderdi hori ez da bete. Azken espediente horretan, zehazki, hauxe azaltzen da: *uztailaren 4an "se firmó la Instrucción correspondiente para fijar en los uniformes de los Ertzaintzas un número de identificación visible para la ciudadanía. Su implantación se realizará de manera progresiva a lo largo de las próximas semanas"*.

Bi informazio horien arteko aldea garrantzitsua da eta, horren ondorioz, une honetan ezin dugu ziur jakin zein den oraingo egoera, neurri hori ezartzeari dagokionez.

Herrizaingo, Justizia eta Administrazio sailburuak ere ez digu horren berri eman behin-behineko ondorioei erantzuterakoan.

h) Herrizaingo Sailak iragarritako neurriak, gure iritziz, ondorio hauetan aipatu ditugun gomendioetan bildutakoekin osatu beharko lirateke. Gomendio horiek Arartekoarenak eta aipatu ditugun beste erakundeek dira.

i) Beste noizbait ere aipatu dugunez, gertakari bortitzak gertatzen badira horien berririk ez duen jende-samalda dagoen tokietan, poliziak esku hartzean aintzat hartu behar du zertzelada hori, saihestu nahi den kaltea baino handiagoa ez eragiteko.

j) Azkenik, ahal den guztietan, indarra erabili baino lehen abisua eman behar dela uste dugu, betiere, abisua aintzat hartzeko denbora nahikoa emanaz, aipatu ditugun erakundeek su-armak erabiltzeko egin dituzten proposamenen ildoan. Gainera, horrela jokatu ezean, jarduera justifikatu beharko litzateke.

13. Poliziaren zeregina zaila eta korapilatsua da, batez ere istiluei eta matxinadei aurre egin behar zaienean, baina guztiz beharrezkoa da sistema demokratiko batean. Gogorazi behar da poliziak herritarren eskubideak eta askatasunak babesten dituela, eraso egin nahi dieten edo urratu nahi dituzten pertsonen aurrean.

Ertzaintzak Ararteko erakundearen laguntza eta begiramena dauka. Halaxe adierazi dugu ahal izan dugun guztietan. Modu berean, autogobernuaren funtsezko erakundearen izaera duela nabarmendu dugu, bai eta haren profesionaltasuna, herritarrei eskaintzen dien zerbitzuen garrantzia eta noizean behin bere lana egiteko izan dituen eta dituen aurkako baldintzak ere.

Onarpen horretatik abiatuta, guztiz bat gatzoz Herrizaingo Sailak apirilaren 12ko Legebiltzarreko agerraldian egin zuen adierazpenarekin, hau da, Ertzaintza defendatzeko modurik onena gertatutakoa argitzea eta berriro ez gertatzeko neurriak hartzea dela.





Agerraldian sailburuak konpromiso bat hartu zuen bere gain: gardentasun osoa ikerketan zehar. Konpromiso horrek bete-betean erantzuten dio aipatutako helburuari, baina ez dela bete iruditzen zaigu.

14. Ararteko erakundeak ekintza bortitzen bidez Ertzaintzari bere eginkizunak betetzea galarazten dioten pertsonen portaera gaitzesten du; izan ere, portaera horrek arriskuan jar dezake beste pertsona batzuen eta polizia-agenteen osotasun fisikoa.

Ikuspegi horretatik abiatuta, Herrizaingoko sailburuak apirilaren 12ko Legebiltzarreko agerraldian egin zuen deiarekin bat egiten dugu, *"para que la celebración de los éxitos deportivos o las reuniones posteriores a los encuentros de fútbol no sean utilizados para la algarada, la violencia o la confrontación entre ciudadanos y ataques a la Ertzaintza"*.

15. Gure iritziz, Herrizaingo Sailak egin duena, hau da, erakunde honi ere ez ematea Bilboko polizia-jarduerari buruzko barne-ikerketaren berri gehiago (hasiera batean Legebiltzarreko lehen agerraldian emandakoa besterik ez), ez dator bat sailburuak bere gain hartu zuen gardentasunaren konpromisoarekin.

Ez dator bat, ez horixe, oinarrizko eskubideen ustezko urratze larriak ikertzen direnean bete beharko liratekeen jarraibideekin ere, biktimen senideei, gertuko pertsoneri eta gizarteari eskaini behar zaien informazioari dagokionez, lehen adierazi dugun moduan.

Semea edo alaba bidegabeki galtzeak familiari eragiten dion bihozmin izugarria ezin da handitu heriotzaren gaineko zertzelada zehatzei buruzko informaziorik ez emanez.

Informazioaz egin ditugun gogoeta horiek, jakina, Gasteizko polizia-jarduera aztergai duen kasuan ere ezar daitezkeelakoan gaude.

Horregatik, jarraibide horiek eta sailburuak bereganatutako gardentasun konpromisoa kontuan hartuta, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak informazio zehatza eta ahalik eta xeheena eman beharko lieke Cabacasen eta Nafarrateren senideei, beraiei dagozkien polizi esku-hartzei buruz. Izan ere, dirudienez, arlo judizialean ez dago informazio hori ematea eragozten duen muga zehatzik.

Gure ustez, horixe da bi familiek polizia-jarduerari buruzko egia ezagutzeko duten eskubidea betetzeko modu bakarra.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak esan digu ez dagokiola bere sailari prozedura judizialaren egoeraren berri ematea, eta Prozedura Kriminalaren Legean bilduta daudela delituaren biktimei informazioa emateaz polizia judizialak dituen betebeharrak. Bere iritziz, horrek baldintzatu egiten du polizia-administrazioak eman dezakeen informazioa. Hala ere, ontzat eman du



gure ondorioa, beti ere berak proposatutako zentzuan interpretatzen bada. Ez du adierazi, ordea, bere sailak guk eskatuta bezala jardungo duen ala ez.

Azpimarratu behar dugu guk egindako gomendioa ez dela ikerketa judizialari buruzkoa, barneko ikerketa administratiboaren ingurukoa baizik, eta bere baitan hartzen dituela ez bakarrik ustezko delituen biktimak, baizik eta baita ere haien familiak, gertukoak eta gizarte osoa. Hori bat dator lehen aipatu ditugun giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek egindako gomendioekin.

Horregatik, ezin dugu ontzat jo sailburuak gure gomendioaz egin duen interpretazioa, ezta interpretazio hori oinarritzeko eman dituen arrazoiak ere.

16. Legeak agintzen duenez, euskal herri-administrazioek lehentasunez eta berehala eman behar dizkiote Arartekoari honek eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, bere eginkizunak bete ahal izateko. Eskatutako informazioa eskuratzea zailtzen duen jarduera oro, legearen arabera, eragozpentzat joko da (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. artikulua).

Gure ustez, Herrizaingo Sailak ez zuen behar bezala bete legezko betebeharrak hori. Aurrekarietan azaldu denez, sobera gainditu zuen –gure iritzirako, justifikaziorik gabe– gure laguntza-eskaeran eskatutako informazioa bidaltzeko adierazi genion epea. Horregatik, berariazko errekerimendu bat egin behar izan genion, eta, horri erantzunez, ukatu egin zituen bai gure eskumena –oinarririk gabe, guk uste, arrazoituta geratu den moduan–, bai laguntza eskatzeko hasiera batean erabili genuen bidea ere.

Azken alderdi horri dagokionez, hauxe esan behar dugu: faxak eta posta elektronikoak bidali bezain pronto komunikazioa jasotzea ahalbidetzen dute, eta hartzaileak hura jaso ote duen egiaztatzea. Horregatik, Ararteko erakundeak bi baliabideok erabiltzen ditu administrazioekin harremanetan egoteko, premiazko arrazoiak dauden egoera guztietan, komenigarria delako. Horixe gertatu da espediente honetan: gure esku-hartzea eragin zuten arrazoiak larriak ziren eta berehala jardun behar genuen.

Horrela, iruditzen zaigu administrazioekin harremanetan egoteko bide horiek guztiz bat datozela otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Arartekoa sortzekoak– erakunde honi egokien irizten dituen baliabide informalak eta arinak erabiliz jarduteko eman dion tarte handiarekin, bere eginkizunak betetzeko behar duen informazioa biltzerakoan. Gainera, guztiz bat dator Arartekoaren prozedurak eraentzen dituen azkartasunaren eta formalismoaren kontrako printzipioarekin (aipatutako legearen 12. artikulua).

Aurrekarietan adierazi denez, Herrizaingo Sailak berak ere bide horietako bat erabili zuen, faxez bidali baitzigun gure eskaerari zegokion erantzuna, postaz bidali baino lehen.





Bere eragozpenak justifikatzeko sailburuak eman dituen arrazoien aurrean -aurrekarietan azaldu ditugu-, zehaztu behar dugu gure jakinarazpenak administrazio organoetara bidaltzen direla, inoiz ez erregistro orokorretara, eta organo hartzaileko erregistro orokorretan jakinarazpen horiek erregistratzeko ardura ez dela Arartekoarena, organo hartzailearena baizik.

Sailburuak aipatu zuen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, hauxe xedatzen du gai horren inguruan: *"Los órganos administrativos llevarán un registro general en el que se hará el correspondiente asiento de todo escrito o comunicación que sea presentado o que se reciba en cualquier unidad administrativa propia"* (38.1 artikulua).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokionez, apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak -sailburuak hori ere aitatu zuen- egoitza nagusian dauden administrazio organoentzako Erregistro Orokor Nagusiaren bulegotzat jotzen ditu sail guztiak, Herrizaingo Saila barne hartuta (I. eranskina). Dekretuak erregistroei zeregin hauek esleitzen dizkie, besteak beste: *"edozein herri-administrazioetako edozein organotara bidalitako eskabideak, idazkiak eta komunikazioak jasotzea"*. [art.6.a)].

Horrez gain, argitu behar dugu azaroaren 26ko 30/1992 Legea ez zaiola Ararteko erakundeari aplikatzen, ezta bere kontrolpeko herri-administrazioekin dituen harremanei ere (2. artikulua).

Edonola ere, uste dugu arau horrek eta sailburuak aipatu zituen gainontzekoek ez dutela bere baitan Arartekoak jardun duen moduan jardutea eragozten duen xedapenik. Aitzitik, azaroaren 26ko 30/1992 Legean bildutako printzipioen aplikazio analogikoak gure jarduera guztiz bermatuko lukeela uste dugu. Gogorarazi behar da lege horrek herri-administrazioen arteko harremanen oinarritzko printzipio gisa ezartzen duela leialtasun instituzionalaren printzipioa, eta printzipio horrek betebeharrak hauek jartzen dituela: *"Gainerako administrazioei, beren eskumenak baliatuz darabilten jarduerari buruz behar duten informazioa eman"*, baita beste hau ere: *"Norberaren eremuan lankidetzeta eta laguntza aktiboa eskaini gainerako administrazioei, beren eskumenak modu eraginkorrean baliatzeko eskatzen dutenean"* [4.1.c) eta d) artikulua]. Halaber, ondorengoak xedatzen du: *"Herri-administrazioek, beren arteko harremanetan, lankidetzeta eta elkarren laguntza dute printzipio, eta, beren jardunean, eragimena eta herritarrekiko zerbitzua dituzte irizpide"* (3.2 artikulua). Azkenik, administrazioen arteko harremanetako printzipio antiformalista biltzen du, izan ere, lankidetzeta-betebeharraren edukia elkarrekin eta borondatez ezartzen diren baliabideen eta prozeduren bitartez garatuko dela ezartzen du (4.5. artikulua).

Horrela, gure iritziz, ez dator bat aipatu printzipioekin, ezta Herrizaingo Sailak Arartekoarekin lankidetzan aritzeko zuen legezko betebeharrarekin ere, faxez bidali den eta jaso dela ukatzen ez den informazio-eskaera bati ez erantzutea.



Are gutxiago, gure ustez, informazio berbera eskatzeko asmoz, ohiko jakinarazpen bidea erabiliz, hasierako eskaeraren kopiarekin batera bidalitako errekerimenduari ez erantzutea. Gauza bera gertatzen da hirugarren jakinarazpena jaso arte gure eskaerari ez erantzutearekin.

Horregatik, erakunde hau ez dago ados, inondik ere, Herrizaingo Sailak alderdi horri dagokionez izan duen jarrerarekin eta adierazi zizkigun eragozpenekin, batez ere gure esku-hartzea oso kontu larriek eragin zutela aintzat hartuta.

Horrez gain, gure aburuz, ez dator bat lankidetzarako legezko betebeharrarekin ezta erakundeek elkarrekiko duten leialtasunaren printzipioarekin ere -gure elkarrenganako harremanak horren mende daude-, Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zuteneko polizi jardueraz hasieran bidali ziguten informazio bakarra Legebiltzarreko agerraldi bateko testua izatea, hiru hilabete lehenago egindakoa, eta testu horrek interesatzen zitzaizkigun gai guztiei ez erantzutea. Gauza bera gertatzen da, gure iritziz, sailburuak iragarri zituen neurriak betearazteko egindako jardueren gainean une hartan informaziorik eman ez izanarekin eta Gasteizko polizia-jarduerari buruzko informaziorik eman ez izanarekin (bertan, Xuban Nafarrate larriki zauritu zuten). Azken kasu horretan, ez zitzaigun jakinarazi zergatik erabaki zen horrela jokatzea.

Arestian adierazi dugunez, jokaera hori ez dago justifikatuta, guk uste, kontuan hartuta Herrizaingo Sailak eman zigun informazioa eta urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean gai horretaz azaldu genuen iritzia.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak gure behin-behineko ondorioei erantzuteko helarazi dizkigun arrazoiek, gure ustez, ez dute justifikatzen Herrizaingo Sailaren jarduera. Halaber, gure aburuz, ez dute justifikatzen sail horri eta sailburuari berari eskatu genion informazioa ez bidali izana, espediente hau eragin duten bi polizia-jardueretan egin ditugun gomendio orokorrak -gure ustez bi kasuetan aplikagarriak dira- bete ote diren egiaztatu ahal izateko.

17. Azaldutako guztia kontuan hartuta eta azaldu ditugun gaien aurrean Herrizaingo Sailak lehenik eta Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak ondoren erakutsi duten jarrera ikusita, uste dugu agortu ditugula gai honetan jarduteko ditugun aukera guztiak.

Horregatik, gai honetan izan dugun parte hartzea amaitutzat eman behar dugu ebazpen honen bidez, sortu dituen gai orokorrak nola bilakatzen diren azter dezakegun arren.

Ondorioak

1. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako arrazoiak oinarri hartuta, ezin ditugu onartu Herrizaingo Sailak lehenik eta Herrizaingo, Justizia



eta Herri Administrazio Sailak ondoren adierazi dizkiguten eragozpenak. Izan ere, sail horiek ukatu egin dute Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zuen polizi jardueraren gainean Ararteko erakundeak esku har dezakeela, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikulua hori eragozten diola uste baitute, jarduera hori epaileari jakinarazi zaiolako.

Halaber, uko egin behar diogu Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio sailburuak gure esku-hartzea bertan behera uzteko egin digun eskariari.

Legeak ongi baino hobeto babesten du espediente honetan izan dugun esku-hartzea, izan ere, eskumena eman digu administrazioari eskatzeko beharrezkoak diren protokolo, arau eta mekanismo guztiak har ditzala -prebentzio-fasean-, pertsonen eskubideak eta herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidea ahalik eta ondoen bermatzeko. Prebentzio-arau horiek barne-ikerketaren eraginkortasuna ere erraztu beharko lukete, administrazioak ustez legez kontra edo modu desegokian jokatzean. Arartekoak halakoetan izaten duen egitekoa epaitegien eginbeharraz bestelakoa da, baina haren osagarria: polizia-administrazioaren jardueraren bat prozedura judizial batean sartuta egonez gero, ombudsman edo herritarren defentsa-erakundeari dagokio jarduera horietan prebentziorako ezarritako protokoloak, arauak eta mekanismoak ezarri ote diren ikertzea eta, ezarri baldin badira, eraginkortasunik zergatik izan ez duten aztertzea (hala gertatu bada). Argitu behar dugu prebentzio-arau horiek ezartzean zerk huts egin zuen gomazko pilota batek jota pertsona bat hiltzeko, horrek ez baitu inoiz gehiago gertatu behar. Laburbilduz, ikertu behar dugu ea zehatz-mehatz errespetatu diren polizia-jarduerak izan behar dituzten mugak, aipatutako gure gomendio orokorrean azaldu dugun moduan.

Aurrez aipatu ditugun arrazoi horiexengatik ez dugu onartu behar sail horiek hartu duten erabakia: alegia, polizia-jarduera horri buruzko barne-ikerketa ez jarraitzea, auzibidean ikertzen ari delako.

2. Gure ustez, funtzionario publiko batzuen jarduerak norbaiten heriotza eragiten badute -hori oso gertakari lazgarria da- edo poliziaren esku-hartzeren batean kalte fisiko larriak izan direla salatzen bada, sistema demokratikoaren mekanismo guztiak jarri behar dira abian, oinarrizko eskubideak babes daitezten. Mekanismo horien artean daude Ararteko erakundea, baita instantzia judiziala eta parlamentarioa eta barne ikerketa bera ere. Ikerketa judizialak erantzukizun penala zehaztea du helburu; aldiz, erakunde inpartzial eta independenteek -herriaren defendatzaileak, aipatutakoen moduko *ad hoc* erakundeak edo polizia administrazioaren barneko organo edo erakundeak izan- bideratzen duten ikerketaren helburua da polizia-jardueraren zertzeladak berehala argitzea, baita ere aztertzea ikertutako jardueran zein protokolo, jarraibide edo arau erabili diren, ea horiek denak poliziaren indarraren erabilera arautu behar duten printzipio eta arauetara egokitu diren, eta ea behar bezala bete diren.
3. Herrizaingo Sailak erabaki zuen Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zuen poliziaren jardueraz barne-ikerketa bat hastea, hori gertatu zen egunaren





biharamunean; erakunde honek ontzat jo du horrela jokatzea eta, gainera, uste du bat datorrela gai horretaz urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ezarri genituen jarraibideekin.

4. Kasu honetan egindako barne-ikerketaren inguruan Herrizaingo Sailak lehenik eta Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak ondoren eman diguten informazioak ez dio erantzun guk eskatutakoari. Gure iritziz, jokaera hori ez dago justifikatuta eta ezin da esku-hartze judiziala oro har aipatzean oinarritu, adierazi ditugun arrazoiengatik, sail horiek egiten duten moduan. Azpimarratu behar da ez batak ez besteak ez digutela adierazi gai horren gaineko erabaki judizial baten ondorioz barne-ikerketari eta horretaz eskain dezakeen informazioari balizko mugarik jarri zaionik, eta ez dutela horrelako mugarik aipatu beren jokaera justifikatzeko.

Bidali diguten informazioan hutsuneak daudenez gero, erakunde honi ez dizkiote eman bere iritzia osatzeko behar zituen elementuak eta, hortaz, ezin du baloratu barne-ikerketari hori urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean jaso genituen jarraibideetara egokitu ote zen (alderdikierarik ezari eta edukiari dagokienez).

Horregatik, ulertu behar dugu Herrizaingo Sailak kasu horretan egin zuen ikerketa ez zela aipatutako jarraibideetara egokitu.

Halaber, polizia-arduradunei eskatu behar diegu polizia-jarduerari buruzko ikerketa sakona, zehatza eta alderdikierarik gabea egin dezatela, oraindik halakorik egin ez badute, eta agor ditzatela eskura dituzten ikerketa-aukera guztiak, gomendioan bildutako jarraibideak kontuan hartuta.

5. Ez dakigu zein egoeratan zegoen Bilboko polizia-jardueraren gaineko barne-ikerketa Herrizaingo Sailak hura ez jarraitzea erabaki zuenean, ez baitzaigu horren berri eman. Nolanahi ere, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazi genuena oinarritzat hartuta (II.1.1. atala), gure ustez, ikerketari berriz ekin beharko litzaioke, baldin eta erabaki hura ikerketa amaitu baino lehen hartu bazen.
6. Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zuten polizia-jardueran erabilitako indarrak eta indarraren barne-kontrolaz Herrizaingo Sailak lehenik eta Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak ondoren eman diguten informazioak ez dio erantzun eskatu genuenari, eta ez digu aukerarik ematen erabilitako indarrak urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean gai horretaz bildutako parametroak (II-2.1. eta IV. atalak) errespetatu ote zituen baloratzeko.

Gure iritziz, informaziorik ez ematea ez dago justifikatuta eta, beraz, ulertzen dugu Herrizaingo Sailak kasu horretan ez zituela aipatutako arau horiek bete. Halaber, polizia-arduradunei indarraren erabilera gomendioan aipatutako ikuspuntutik azter dezaten eskatzera behartzen gaitu.



7. Esku-hartze horretan erabilitako indarrari buruz Herrizaingo Sailak eman zizkigun datuek agerian jar lezakete Ertzaintzaren jarduera kasu horretan ez zela egokitu bete behar zituen arauetara, jaurtiketa-distantziari dagokionez, ezta ahokoak posizio leunean egon balira ere.

Ohar hori, edonola ere, polizia-administrazioak bidal diezazkigukeen argibideen zain gauden bitartean egin dugu. Argibide horiek zehaztu ahal izango dute gomazko pilotak zehazki zer distantziatatik jaurti ziren eta zer ahoko erabili ziren, orain arte ez baitzaigu halako informaziorik eman.

8. Herrizaingo Sailak hasieran ez zigun inolako informaziorik eman Gasteizen burututako polizia-jardueraz –bertan, Xuban Nafarrate gaztea larriki zauritu zuten-, eta ez zigun jokaera hori justifikatzeko inolako azalpenik eman.

Gerora Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak eman zigun informazioak ez dio erantzun eskatu genuenari.

Informazio falta horren ondorioz, kasu honetara ere hedatu behar dugu Iñigo Cabacas heriotza eragiteraino zauritu zuten jardueraz egin dugun balorazioa, bidali zaigun informazio eskasa oinarri hartuta. Hortaz, ondorioztatu behar dugu kasu horretan ere ez direla bete urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean bildutako arauak, interesatzen zitzaizkigun alderdiei dagokienez: alegia, ikerketa eta erabilitako indarra, baita barne-kontrola ere (II.1.1, II.2.1. eta IV atalak).

Halaber, polizia-arduradunei eskatu behar diegu, oraindik egin ez badute, gertakarien gaineko ikerketa sakona, zehatza eta alderdikierarik gabea egin dezatela, gaztearen familiak poliziaren jokaeraz azaldu dituen zalantza guztiak argitzeko, gure gomendio orokorrean bildutako arauak jarraiki, eta agiri horretan adierazitako ikuspegitik azter dezatela indarraren erabilera.

9. Espediente honetan aztertzen ari garen polizia-jardueren ondorioz bideratu ziren atestatueta esku hartu zuten agenteek egindako deklarazioak aztertu beharko lituzke polizia-administrazioak, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean adierazitako ikuspegitik, atestatuena edukia errealitatearekin bat datorren ala ez kontrolatzeko, atestatu horiek eragin zituzten gertakariei dagokienez (II.2.3. atala).

10. Gure ustez, beharrezko neurriak hartu beharko liriteke polizia-jarduera batek eragindako pertsonen poliziaren arduradunek ematen duten informazioak beharrik gabe haien irudia kalte egin dezan.

11. Ez dakigu agenteei gomazko piloten erabileraz emandako jarraibideak Herrizaingo Sailak adierazi zizkigun berberak izan ote ziren espediente hau eragin duten gertakariak jazo zirenean. Horrela baldin bada, esan behar dugu, erakunde honen ustez, jarraibide horiek mugatuegiak direla, kontuan hartuta



material horrek heriotza eragin dezakeela eta pertsonen osotasun fisikoa erremediorik gabe kaltetu dezakeela.

12. Oro har, ontzat jotzen ditugu Herrizaingo Sailak hain gertakari tragikoak eta mingarriak –adibidez, Iñigo Cabacasen heriotza- berriro gerta ez daitezen iragarri dituen neurriak, barne-ikerketa ez jarraitzeko erabakiaz aipatu ditugun eragozpenak eta proposamen batzuez dugun iritzia izan ezik. Egokia iruditzen zaigu, halaber, neurriak bizkor hartu izana.

Hala ere, nahigabetu egin gaitu guri ez jakinaraztea neurri horiek nola zehaztu diren, ezta ere zer jarduera egin ziren neurriak iragarri zirenetik Herrizaingo Sailak espediente honetan egin genion laguntza-eskaerari erantzun arte igaro ziren ia hiru hilabeteetan.

Nahigabetu egin gaitu, baita ere, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak orduz geroztik oso informazio gutxi eman izanak.

Nolanahi ere, gure ustez, neurri horiek ondorio hauetan aipatu ditugun gomendioetan eta proposamenetan bildutakoekin osatu beharko lirateke. Gomendio horiek Arartekoarenak nahiz eskubideak bermatzeko nazioarteko eta Europako beste erakunde batzuenak dira.

13. Aipaturiko organismoek egin dituzten gomendioak aztertu beharko lirateke, polizia-jarduereen ikerketa mekanismo independente batek ere egin dezan, bizitzarako eskubidea eta osotasun fisikorako eskubidea kaltetzen direnean edo oinarrizko beste edozein eskubide larriki urratzen denean, baita arma hilgarri bat erabiltzen den kasuetan ere. Egindako azterketa horretan kontuan hartu beharko lirateke, era berean, gure inguruko herrialdeek arlo horretan ezarri dituzten jarduera egokiak.

14. Poliziaren zeregina zaila eta korapilatsua da, batez ere istiluei eta matxinadei aurre egin behar zaienean, baina guztiz beharrezkoa da sistema demokratiko batean. Gogorarazi behar da poliziak herritarren eskubideak eta askatasunak babesten dituela, eraso egin nahi dieten edo urratu nahi dituzten pertsonen aurrean.

Ertzaintzak merezi duen aintzatespen eta begirune horretatik abiatuta, bat gatoz Herrizaingo sailburuak apirilaren 12ko Legebiltzarreko agerraldian egin zuen adierazpenarekin, hau da, Ertzaintza defendatzeko modurik onena gertatutakoa argitzea eta berriro ez gertatzeko neurriak hartzea dela.

15. Ararteko erakundeak ekintza bortitzen bidez Ertzaintzari bere eginkizunak betetzea galarazten dioten pertsonen portaera gaitzesten du; izan ere, portaera horrek arriskuan jar dezake beste pertsona batzuen eta polizia-agenteen osotasun fisikoa.





Ikuspegi horretatik abiatuta, Herrizaingoko sailburuak apirilaren 12ko Legebiltzarreko agerraldian egin zuen deiarekin bat egiten dugu, *"para que la celebración de los éxitos deportivos o las reuniones posteriores a los encuentros de fútbol no sean utilizados para la algarada, la violencia o la confrontación entre ciudadanos y ataques a la Ertzaintza"*.

16. Gure iritziz, Herrizaingo Sailak egin duena, hau da, erakunde honi ere ez ematea Bilboko polizia-jarduerari buruzko barne-ikerketaren berri gehiago (hasiera batean Legebiltzarreko lehen agerraldian emandakoa besterik ez) ez dator bat sailburuak bere gain hartu zuen gardentasunaren konpromisoarekin. Ez dator bat, ez horixe, oinarrizko eskubideen ustezko urratze larriak ikertzen direnean bete beharko liratekeen jarraibideekin ere, biktimen senideei, gertuko pertsoneri eta gizarteari eskaini behar zaien informazioari dagokionez.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak ondoren izandako jardueraz ere iritzi horixe dugu.

17. Jarraibide horiek eta sailburuak bereganatutako gardentasun konpromisoa kontuan hartuta, polizia-arduradunek informazio zehatza eta ahalik eta xeheena eman beharko liekete Cabacasen eta Nafarrateren senideei, beraiei dagozkien polizi esku-hartzei buruz. Izan ere, dirudienez, ez dago informazio hori ematea eragozten duen muga judicial zehatzik.

18. Legeak agintzen duenez, euskal herri-administrazioek lehentasunez eta berehala eman behar dizkiote Arartekoari honek eskatutako datu, agiri, txosten edo argibide guztiak, bere eginkizunak bete ahal izateko. Eskatutako informazioa eskuratzea zailtzen duen jarduera oro, legearen arabera, eragozpenezat joko da (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. eta 24. artikulua).

Gure iritziz, espediente honetan Herrizaingo Sailak ez zuen behar den moduan bete legezko betebeharrak, eta ez zen egokitu elkarrekin ditugun harremanetan nagusitu behar duen erakunde arteko leialtasunaren printzipiora.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak ez du behar bezala bete, gure ustez, Arartekoarekiko duen lankidetzaren betebeharra.